



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ezohiko osoko bilkura
Eguna: 2018ko apirilak 12
Ordua: 09:05 – 11:00
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Miren Izaskun Perez Barragan
Joseba Mirena Vivanco Retes
Alazne Lafragua Ureta
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1.- 2018ko martxoaren 7an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkatea: Baduzue ezer esateko?

Alkatea: nik ñabardura bat egin nahiko nuke. Zalantza bat sortu zait. Agerraldi batean Joseba Vivanco balitz bezala agertzen zen, eta nik uste dut Arkaitz zela, esaldi bat. Baina ez dut ondo oroitzen esaldi hori. Itxaron, ea aurkitzen dudun. 1. formula ekartzearen esaldia. Zurea zen Joseba edo Arkaitzena? 13. orrialdean. Bigarren lerroan.

Joseba Vivanco Retes: uste dut ni izan nintzela.

Alkatea: ados, orduan utzi egingo dugu. Bozkatzeari ekingo diogu.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

2.- 2018ko Udal Aurrekontuan onartzea.



“2018KO MARTXOAREN 21EAN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

AKORDIO-PROIEKTUA

Ogasun Batzorde Informatzaileek 2018ko urtarrilaren 10ean eta martxoaren 21ean egindako saioetan, 2018. urterako Aurrekontuko espedienteaz aztertu ostean, Udaltzari akordio hau har dezala proposatu diete:

1.- Udal honek 2018. ekitaldirako taxutu duen Aurrekontu Orokorra hasiera batean onartzea. Aurrekontuaren zenbatekoa MILIOI BAT ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA ETA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMOKOA (1.850.697,59 €) da, Sarrerren Egoeran nahiz Gastuen Egoeran. Honatx aurrekontuaren laburpena kapituluka:

GASTUEN EGOERA

	Kapitulua	Zenbatekoa
I	Personal-gastuak	743.898,80
II.	Ondasun Arrunten Erosketa eta Zerbitzuak	596.103,17
III	Finantza-gastuak	0,00
IV	Transferentzia Arruntak	351.986,26
V	Kreditu Orokorra eta bestelako ustekabeak	13.235,36
VI	Inbertsio Errealak	139.474,00
VIII	Finantza-aktiboak	6.000,00
IX	Finantza-pasiboak	0,00
	Gastuen egoera guztira	1.850.697,59

SARREREN EGOERA

	Kapitulua	Zenbatekoa
I	Zuzeneko Zergak	463.600,00
II.	Zeharkako Zergak	36.250,00
III	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	272.604,95
IV	Transferentzia Arruntak	1.062.025,64
V	Ondare-sarrerak	10.217,00
VI	Inbertsio Errealen Besterentzeak	0,00
VII	Kapitalaren Transferentziak	0,00
VIII	Finantza-aktiboak	6.000,00
	Sarrerren egoera guztira	1.850.697,59

2.- Aurrekontuaren espedienteaz agertzen den Aurrekontua Exekutatzeko Udal Araua onartzea.

3.- Erakunde honen lanpostuen zerrenda onartzea, aipatutako espedienteaz agertzen dena.

4.- Espediente hori jendaurrera eramatea erreklamazioak egin ahal izateko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako forma eta epeak betez.

5.- Erreklamaziorik ez balego, akordio hau behin betikotzat hartzea.

6.- Erreklamazioak jarriko balira, beste akordio bat hartzea hilabeteko epean.

7.- Behin betiko akordioa arauz ezarritako forma eta epeak betez argitaratzea.



8.- Behin betiko akordioarekin batera, Erakunde honen lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9.- Aldi berean, espedientearen kopia bat igortzea Arabako Foru Aldundira”.

Alkatea: hori da proposamena. Zerbait esan nahi baduzue.

Joseba Vivanco Retes: gure aldetik aurrekontuan eman genuen botoaren argudioa azaltzea. Joan den urtean EAJ alderdia harro agertu zen publikoki bere aurrekontuak aurrera atera zituela eta, bozketarako Bilkuran EH-Bilduko zinegotzi bat (emakumea) falta izan zelako. Bai, EH-Bilduko zinegotzi bat, gizarte-sareetan hedatutako idatzian azaldu zuten moduan. Lasai, ez duzue aurrekontu hau aurrera aterako EH-Bilduko inor Saiora bertaratzen ez delako, eta horrekin EAJ alderdiak berriro akzioa egin dezan, orduan grazia ez beste guztia izan baitzuen. Kasu honetan EAJ alderdiak bere aurrekontua aurrera aterako du, Alderdi Popularraren botoari esker, hori da pentsatzen duguna. Izan ere, eztabaidatzen hasita, eskuinak batu duena, zergatik bereziko du eskualdean eta ia Araba osoan euskaraz dagoen hedabide bakarrari emateko diru-laguntza batek? Bada, esan eta egin, EAJ alderdiak kendu egiten du eta horrela Alderdi Popularra pozik uzten du. Alderdi Popularrak bere burua zuritu zuen Alkatetzeta EAJ alderdiaren eskura ipini zuenean duela hiru urte "nire botoa udalerrri honentzat nire ustez onena denaren arabera izango da, izan ere, herritar gehienei eman nahi diet nire ahotsa eta botoa, eta herritar horiek ordezkaturata daudela sentitzea nahi dut". Horrexegatik, euskara sustatzeko laguntza bat kendu genuen, hori baita PP eta EAJ alderdien arabera Artziniegako jendeak nahi duena, eta pozik horrela. EH-Bildu udal taldetik EAJ alderdiak aurkeztutako 2018ko udal aurrekontuaren proposamenari gure ezezkoa aurreratu dugu. Ezezkoa zenbakiei, eta batez ere eta bereziki ezezkoa zenbaki horien kudeaketari. Zergatik diogun hau? Bada, zenbakietatik, ehunka edo milaka euroko partida batzuetatik harago, EAJ alderdiarengandik egunez egun urruntzen gaituena Artziniegako pertsona guztien diru horien gainean egiten duen kudeaketa da. Ezin gara ados egon zerarekin, baina erabateko desadostasuna dugu moduarekin. 2018. urteko aurrekontuen eztabaida jorratzeko gure planteamenduaren ardatza aurrekontu hori ahalik eta errealista izan zedin saiatzeko ahalegina egitea izan zen. Inbertsio eta obrekin lotutako proposamenak bazter utzi genituen, izan ere, oro har, EAJ alderdiak sekula ez ditu aintzatesten, eta kontuan hartzen baditu Alkatetzako tiraderaren batean uzten ditu alferrik. Lan gogorra egin dugu azken lau urteetako aurrekontuak banakatuz, ekitaldi horietako bakoitzean aurreikusitako diru-sarrera eta gastuak urte beraren amaierako diru-sarrera eta gastu errealekin alderatuz, hortik aurrera, 2018. urte honetan errealitatearekin lotura gehiago duten zenbakiak proposatzeko. EAJ alderdiak horietako zenbait onartu egin ditu, logika hutsa zirelako, beste batzuk erdizka onartu ditu, eta gehienak ukatu egin ditu. Aitzitik, zer lortu dugu EH-Bildutik proposamen horiekin? Bada, esate baterako, Artziniegan festetarako partidari 3.000 euro gehiago egotea. Udal eraikinak konpondu eta mantentzeko partidari ere 3.000 euro gehiago egotea, edo Artziniegako herri edo auzoetan egindako inbertsioetan 2.000 euro gehiago izatea EAJ alderdiak hasiera batean moztu egin baitzuen kopuru hori. Era berean, gure proposamenari esker, turismo-jarduerak sustatzeko partida bikoitzetik gora areagotu da EAJ alderdiak hasiera batean proposatzen zuenarekin alderatuz, auzoetako festetarako partida ere zertxobait areagotu da, eta kultur arloko diru-laguntzetarako partidari ere 2.000 euro gehiago egon dira EAJ alderdiak proposatzen zuena baino. Zenbait gauza lortu ditugu, baina ez dira aski EAJ alderdiaren aurrekontuek gure abstentzioa ere merezi dezaten. Zergatik? Bada, beste gauza batzuen artean, EH-Bilduren arabera, kendu egin beharko liratekeen zuzeneko diru-laguntza modura hartzen ditugun zenbait partida mantendu egiten direlako, behin diru-laguntzen ordenantza bat onartu berri dugun honetan, Elkarte eta partikular guztiek eska ditzaketanak. Antzinako Azokarako partida areagotu egiten delako, EAJ alderdia denean Artziniegan azokaren etorkizunari buruzko eztabaida eta gogoeta egiteari muzin egiten dion bakarra. Bide batez, begira zuen kolkora, aurten inork ez baitu Artziniegako azoka antolatu nahi izan, ezta festak ere. Ez dugulako ulertzen Amurrioko Zaroabe



Institutuan ikasle bakoitzeko 20 euroko diru-laguntza ukatzea eskolaz kanpoko jardueretarako, baina batez ere, hasieran esan dugun eran, ez garelako fio eta ez zaigulako gustatzen udal kontuen gainean egiten duten kudeaketa. EAJ alderdiak hemen 2018. urterako dakarkigun aurrekontuan 2017an jadanik aurrekontuan sartuta eta aurreikusita zeuden obretako inbertsioak barneratzen dira. Hori al da kudeaketa ona? EAJ alderdiak autobus-geralekuaren zonaldea eraberritzearen ekimena aurkezten digu aurtengo urterako, 2017. urterako aurreikusita zegoena eta egin ez zena. EAK alderdiak Barratziko zubira arteko bidea birgaitu eta balorizatzeko proiektua aurkezten digu aurtengo urterako, 2017. urterako aurreikusita zegoena eta egin ez zena. EAJ alderdiak kirol zonaldearen hesi-multzoaren, azken urteetan egoera tamalgarrian eta lotsagarrian, zaharberritzea aurkezten digu aurtengo urterako, 2017. urtean egiteko konpromisoa zegoenean. Otsati eta Soxogutin barrenako lehendabiziko bi mendi-ibilbideen seinaleztapena, 2017. urterako aurreikusia, oraindik ez da egin, eta kontuan hartu behar da Ganzorrotz mendi-klubak bere garaian egindako proposamena 2015ekoa dela. Hori al da kudeaketa ona? Eta ez dugu sutara egur gehiago bota nahi, horren liluragarriak ez diren adibideekin, baina diodan bezala odol-husteko modukoak, Erreta Tuterako zabuena edo El Palacio urbanizazioaren irteerako ispiluarena kasu, ezta Eskorialeko obrak bailiran ere. Era berean, ezin ditugu aipatu gabe utzi 2017. urtean gauzatu ziren bi obra nagusiak, kiroldegiaren zonaldeko aparkalekua eta Udaletxe zaharraren zaharberritzea, aurreikusita zegoen eran irailan ez bukatzeaz gain, obra horiekin arazo andana herrestan eramateaz gain, diru-laguntzak jasotzeko ziurtapenak korrika eta presaka onartzeaz gain, oraindik bada fakturaren bat hor nonbait ezohiko lanena, eta ikusiko dugu nork ordainduko dituen. Izan ere, jakina, EH-Bildu alderditik ukatu egingo dugu Artziniegako herritarren diruarekin egin dadila ordainketa. Hori al da kudeaketa ona? Eta hemen gaude diru-inbertsio eta obregatik borrokan, gauzarik penagarriena denean EAJ alderdiak gobernaturako Udal honek 2017. ekitaldia zorroan 1.047.850,19 euroko aurrezpen batekin itxi duela, berriro esango dut 1.047.850,19 euro. Hori al da kudeaketa ona? Irudikatzen al zarete zuen etxeetan autorearen gurpilak aldatu gabe, higatuta, bainugelako ponpak funtzionatzen ez duela, nahi duenean berotzen duen mikrouhin batekin, ozenki berria erosteko eskatzen duen arropagarbigailu batekin, eta aldi berean milioi euroko aurrezkiak zorroan? Bada, horixe da EAJ alderdia Artziniegan egiten ari dena. 2014 urtea itxi zenean 832.506 euroko aurrezkiak zegoen zorroan, 2015ean 928.906 eurokoa, 2016an 870.178 eurokoa eta 2017. urte honetan, berriro diot, 1.047.850 euro daude zorroan, errekorra. Bada, EAJ alderdiko jaun-andreok azaldu Artziniegako jendeari zergatik ez den beren espaloia konpontzen, edo kaltetuta dagoen kirol zonaldea, edo el Palacio urbanizazioaren aurrealdea, edo zergatik ez den egiten behingoz bentara arte promes egindako bidea, edo auzoetan demandatzen diren bide eta premiak. Azaldu iezaguzue zergatik ez den konpontzen Arteko zelaiko etxolen zonaldea, zergatik ez den skate pista bat egiten duela zenbait urte hainbat eta hainbat pertsonak idatziz eskatuta bezala, erantzunik ere jaso ez zutelarik, zergatik ez den inbertsiorik egiten udalerriko turismo-erakarpenera bultzatzeko hobekuntzetan. Azal iezaiozue Artziniegako jendeari datozen urteetan zaborrengatik gehiago ordaindu beharko dutela eta bitartean Udalak aurreztu baino ez duela egiten, Gilito bailitzan. Berriro diot, hori al da kudeaketa ona? Kudeaketa ona al da aurreztu eta aurreztu ibiltzea herriak premia ugari dituen bitartean?

Arkaitz San Jose Martinez: bukatzeko, euskaraz bihotzak hala eskatzen didalako, eta eskubidea daukadalako, asken finean Euskara bai da ere Herri honetako hizkuntza ofiziala, batez ere, egin duzuen azken hondaketari buruzko gogoeta bat, azken aldaketa izan baita batzordean bildu ginenetik gaur ekartzen duzuen proposamen horretara da aldaketa bakarra dago. Eta aldaketa bakar hori da Aiaraldea euskarazko hutsezko komunikabide daukagu, komunikabide bakarrari egiten zaion hitzarmena aurrekontutik kentzea. Eta batez ere zuen erantzukizuna dela hori, zuena baita aurrekontuen proiektua, ez beste inorena. Igual beste baten onarpena edo abstentzioa lortzeko hala egin behar izan duzue baina zuena da proiektua. Euzko Alderdi Jeltzalearena da proiektua, eta Euzko Alderdi Jeltzaleak babesa ematea Euskaraz Aiaran



daukagun komunikabide, Euskaraz hutsezko komunikabide bakarrari aurreikusita zegoen diru-laguntza kentzea, guretzako oso larria da. Bai, ia, ia, eskolaren bitartez, bazkidetzen bitartez, edo beste era batera, Artziniegako etxe guztietara heltzen den komunikabidea. Erabilera laguntzen duen komunikabidea, izan ere, esango diguzue ezagutzarako, ikasketarako, handitu duzuela aurrekontua, batetik kendu, bestean jarri, baina benetan inportanteena dena da erabilera, eta horregatik batzuek ez dute nahi ikusi Aiaraldea gure etxeetan. Orduan, zuek, kudeaketaren txapeldunak zareten horiek berriz ere kudeaketa arazo bat planteatu duzue, ez zegoena. Zuen beste gainontzeko aurrekontu guztiak atzeratzeko aitzakia bakarrarekin. Eta zuek ikusi baina zuena da ardura kasu honetan, ez beste inorena. Bai, eta hori, eta Josebak ezan dituen beste hain baten gauzengatik, zalantzarik ez ba genuen ere, orain are eta ziurrago esango diegu ezetz zuen proposatuko aurrekontuen proiektuari.

Joseba Elejalde Ribacoba: gauza bat Joseba Vivancok esan duenarekin lotuta. Ez nago euskararen aurka, Joseba. Are gehiago, 1.500 euroko partida horretan, nire azalpenean zehaztuko dudan moduan, 1.500 euro horietako zati bat euskararen erabilera sustatzera doaz. Nik Iñigori esan nion partida hori osorik sartuko nukeela, 1.500 euro horiek, eta ekar nitzakeela, euskararen barnean bi antzezlan, edo Udaletik beharrezkotzat jotzen dena. Sekula ez naiz euskararen aurka egon eta horrela erakutsi dut duela 20 urtetik hona, baina udalerrri honetako herritar guztiei eta Aiaraldeako herritar guztiei esker finantzatzen den enpresa baten aurka nago. Anitza ez den enpresa bat, nahiz eta euskarazko hedabidea izan. Eta hori nire eskakizunetako bat da, beste askoren artean. Iaz zuen taldetik Alderdi Popularrari eta nire pertsonari prestigioa kentzen saiatu zineten, 2017ko aurrekontua Alderdi Popularraren aldeko botoari esker onartuko zela esanez. Bada, atsekabe handi samarra izan zenuten, izan ere, horixe zen zuek behar zenuten makulua Artziniegako herritarren aurrean zuen jarrera defendatu ahal izateko. Aurten bai, abstentzioa emango dut, abstentzioa emango dut, ez gara elkarrekin joango, Josebak ongi aipatu duen moduan. Aiaraldeari buruzko puntu hori niretzat garrantzitsua da eta baita nire iritzia bera duten ehunka, milaka, pertsonentzat ere. Nik Artziniegako interes orokorrean erreparatzen dut, eta horrela erakutsi dut urtez urte. Horrenbestez, 1.500 euro horiek beste partida batera bideratzea behar dut nik, Alkateari esan nion Artziniegan euskararen sustapena eta erabilera, eta hor jarraitzen dute. Nik emango dudana botoaren aurrerapena baino ez da. Zioen azalpena honakoa da: EAJ alderdiari aurrekontuen onarpenean kanpaina salbatu eta urtebetera, beste aurrekontu bat aurkezten digu, 1.850.697,59 euroko aurrekontua. Baina, gobernuko taldeak honako kapitulu hauek doitu gabe jarraitzen du: 1. kapitulu, langileen gastuak; 2. kapitulu, ondare arrunten erosketak eta zerbitzuak; 4. kapitulu, finantza-gastuak; 5. kapitulu, kreditu orokorra eta ezustekoetarako. Kapitulu horiek guztiak onarpenerako aurkezten den aurrekontuko gastuaren % 91,85 suposatzen dute, % 8,15eko inbertsioa geratzen delarik. Urte asko daramatzat esanez honek ezin duela horrela jarraitu, guk ezin dugu xahutu lehen lau kapitulutan aurrekontuaren % 92, eta soilik % 8,15 edo % 9 edo % 10 utzi inbertsioetarako. Izan ere, Bilduk esan duen moduan, horrek suposatzen du azken batean gauzatu beharreko obrak ez direla gauzatu, eta etengabe zain egon beharko garela beste administrazio batzuetako diru-laguntzak noiz iritsiko inbertsio horiek gauzatzeko. Aurrekontu honek urtero beste estamentu edo administrazio batzuetatik ezohiko finantzaketa eskuratzera behartzen gaitu, Artziniegako Udalarentzat horren beharrezkoak diren inbertsioak gauzatu ahal izateko. Hori neurri gabeko gastu horren ondorio da, 1. kapitulutik 4. kapitulura bitarteko gastu horrena. Beti gabiltza Damoclesen ezpatarekin, finantza-ariketa bihurriak egiten gastuaren sabaiarekin eta aurrekontu-egonkortasunarekin betetzeko, edo obra handiak gauzatu ahal izateko. Alderdi Popularraren udal taldetik zorrotz begiratzen diogu gai honi duela urte askotik, egoera iraul dadin. Zaila da, baina ez da ezinezkoa. Urtez urte osorik gauzatu gabe geratzen diren partida asko birdoitu behar dira eta urtero funtzionarioen postuak berrikusi behar dira, langileen gastuak gora doaz, zuzenean edo zeharka. Aiarako kuadrillako teknikariak: aurten, berriz ere, Aiarako Kuadrillatik igoera izan dugu, Udal honetako zorrora 30.000 euro gehiago ekartzen dituen. Horrek suposatzen



duenarekin, izan ere, azken batean egin daitezkeen inbertsioak murriztea dakar. Horren ondorioz, gastuei buruzko 1. kapitulua areagotu egiten da eta horrekin inbertsiorako ahalmena urritu. Ez dut aipatu gabe eta mahai gainean ipini gabe utzi nahi diru-zaintzan dagoen milioi bat euroko soberakina. Espero dugu diru hori datozen urteetan inbertitu ahal izatea Espainiako Gobernuak Lege Dekretu bat onartu ostean, joan den otsailean Montoro ministroak aurreratu zuen moduan. Alderdi Popularraren ideia bat diru-zaintzan soberakina duten Udal guztiek inbertsioa egin ahal izateko eta Bilduk esaten zuen moduan diru hori ez dadin egon tiradera batean sartuta edo bankuan gordeta, ezertxo ere ekoitzi gabe. Aurten PP alderdiak aurrekontuaren aurrean zenbait alegazio aurkeztu ditu, horietako zenbait errepikatu egiten dira 2017. urtearekin alderatuz. PP alderdiak, akordioei esker eta negoziazioan lan ona egiteari esker, oso garrantzitsuak diren zenbait partida barnera daitezela lortu du, eta ekonomikoki horietakoren batek aparteko gastua suposatzen ez badu ere, aurrerapauso garrantzitsua da. PP alderdiak 3.000 euro lortu ditu ondareen inbentarioari ekiteko. Dakizuen moduan, ez daukagu ondareen inbentariorik, ez dugu bideen inbentariorik, ez dugu deus ere. Alderdi Popularrak horri buruz aipatzen duen arazoa da bide askotan diru-laguntza eskatzeko aukera dugula eta ez digutela ematen bideen inbentarioan barneratuta ez dagoelako. Eta horrela behin eta berriz. Aurten Alderdi Popularrak horren beharrezkoa den eta horren atzeraturik dagoen ondareen inbentario horrekin hasteko 3.000 euro lortu ditu, eta diru-zaintzako soberakinarekin inbentario osoa gauzatzeko konpromisoa. PP alderdiak, era berean, Aiaraldeako partida aurrekontutik kentzea eskatu eta adostu du, Bildurentzat horren gatazkatsua dena. 1.500 euro, batere herrikoia ez den euskarazko hedabide batera zuzendua zegoen diru-laguntza bat. Akordio horrek hedabide horretan publizitaterik ez argitaratzea gaineratzen du. Zenbateko horrekin euskararen sustapen eta erabilerarako partida hobetu egin da eta arkitektura-oztopoak kentzeko partida, arkitektura-oztopo asko baitaude, eta zoritxarrez gurpildun aulkian edo makuluekin ibili behar dutenek edo aldapa zenbait igo behar dituztenek, pentsa... Uste dugu beharrezkoa dela pixkanaka arkitektura-oztopo horiek kentzen joatea. PP alderdiak aintzatestea lortu duen beste alegazioa bat Aiaraturreko partida kentzearena da, desagertzeko bidean zegoen turismo-elkarte batera bideraturik zegoen partida bat. PP alderditik uste dugunez, ezinbestekoa da Udalak Artziniega dagokion lekuan ipiniko duen turismo-proiektu baten diseinua bultzatzea eta horretan funtsezko pieza izatea. Partida hori kenduta turismo-jarduerak sustatu eta merkataritza biziberritzeko partida hobetu egin da, eta beste partida zenbait gaineratu dira, Dya eta Gurutze Gorriarena kasu. Derrigorrezko partidak bi elkarteek burutzen duten lan sozial itzela kontuan hartuz. Bentako auzoan haur jolasen parke bat ipintzeko ikerketa tekniko bat egiteko konpromisoa lortu da, auzo horretako auzotarren eskaera kontuan hartuz. PP alderdiak hori kea baino izan ez dadin eta errealitate bihur dadin espero du eta horretan lan egingo du. Halaber, la Encina tabernatik Rominako bueltara bitartean espaloi berri bat egiteko txosten tekniko bat eratzeko konpromisoa erdietsi da. PP alderdiak uste duenez, ezinbestekoa da zonalde hori guztiori burutzea autobusen aparkalekua eta Plaza tabernaren alboko espaloia hobetzeko beharrezkoak diren obrak hasiko direla aprobetxatuz. Akordio eta konpromiso horiekin PP alderdiak lanean eta oposizio konstruktiboa egiten jarraituko du, datozen urteetan ekitatiboagoak diren eta inbertsioak gehiago azpimarratuko dituzten aurrekontu batzuk lortzeko.

Alkatea: beno, konturen bat aipatu nahiko nuke. Lehenik eta behin, sartzen diren partidei dagokienez, batez ere hasierako proposamenaren inguruan, esan, batez ere 1. kapitulua eta 2. kapitulua, proposamen tekniko delako argiro, non hasiera batean gastuen aurrekontuko zirriborroa gaineratzen den. Apur bat aurrekontuen bilakaeraren arabera da, nola funtzionatu izan den kontuan hartuz. Egia da hala Bilduk nola Alderdi Popularrak egindako proposamen asko aintzatesi egin direla, aurrekontuan barneratu direnak. Esate baterako, ongi aipatu duzuen bezala, festetan igoera dago, ez dago 3.000 euroko igoera, 1.000 euroko igoera dago zuen proposamenean, izan ere, hasierako zirriborroan 2.000 euro areagotzea aurreikusten zen jadanik. Auzoetako partidari 20.000 euroak mantendu egiten dira, nahiz eta beste partida



batzuetatik ere badiren auzoetara bideratzen diren zenbait partida. Egia da turismo-jardueren partida areagotu egiten dela, funtsean Aiaratur desagertuta eta Aiaraturreko kuota turismo-jardueretara bideratuta. Zaraoberen kasuan, Babio Guraso-elkarteara, lehen partida bat sortu da, 600 euroko ekarpen batekin. Gero ikusiko dugu premien arabera zilegi den ala ez, baina nire ustez izan genuen bilkuran aukera hori askitzat hartu zen. Beno, gauza asko aipatu dituzue, beno, atzerapenak izan diren alderdietan, hala da, izan ere, inbertsio batzuk hobeto atera dira, beste batzuk aurrera ateratzea nekezagoa izan da, ea, ispiluaz hitz egiten badizut azkenik Aldundia izan zen ipini zuena. Eta diru-zaintzako soberakina ere aipatu duzue. Beno, bada, 2017ko ekitaldian 950.000 euroko diru-zaintzako soberakina izatea eta 600.000 euro inbertitzea, udalerrian egiteko obretan 600.000 euro inbertitu izana ez dago horren gaizki. Eta jakina, eta diozue, "950.000 euro ditugu ordea". Egia da, baina ekitaldi honetan burutzeke ditugun obrak izango ditugu eta hasteko 1.200.000 eurokoa, eta aipatu egingo ditut. Zuntz-zementuzko hodiaren aldaketa daukagu, depositutik Arenaza auzoko sarrerako biribilgunera arte. Horrek eraldaketa bat dakar, pilotalekuaren pareko parkinga egokitzea eta biribilgunetik Geltoki plazara doan malda berriro asfaltatzea. Halaber, hoditeria berritzea proiektua dugu, edo ez berritzea, baizik eta depositutik Gordelizera arte doan hoditeri berri bat egin beharra, ur gordina kontsumitzeari utzi diezaioten, halaxe baitaude orain arte. Udal igerilekuen egokitzapena daukagu, egiaz beharrezkoa den obra, arazketa-sistemaren egokitzapena eta hondar-gunearen eraberritzea, eta gutxi gorabehera 300.000 eurora goaz. Ikastetxean urtero sartzen ari garen obrak dauzkagu, eta zabuak berri nahi ditugu eta lehen hezkuntzako bainua zaharberri nahi dugu. Eta Led luminariak aldatzeko prozedurarekin ere jarraitu beharrean gaude, eta gaineratuz joan. 1.200.000 euroko inbertsioaz hitz egiten ari gara. Beraz, kontu horietan sartu ahal badugu, soberakin handia daukagulako da. Bestela, ezingo genuke egin. Orduan, apur bat lehen esan dudan hori azpimarratzea, taldeek egindako proposamenetako asko onartu egin ditugula, Bildutik ez duzuela inbertsiorako inolako proposamenik aurkeztu, egia da posta elektronikoko batean skate pista aipatzen duzuela, eta Arteko lokalak konpontzea ere bai, baina besterik ez, eta guk talde modura gauza bat argi daukagu, gure lehentasuna aurrekontua onartzea dela. Zuentzat Aiaraldeako partida horren garrantzitsua bazen, defendatu egin behar zenuten. Ezertarako ez du balio esateak ez zaudetela ados kudeatzeko moduarekin, inbertsioekin, prozedurarekin, eta ondoren kritika egiten dugu partida bat kentzeagatik. Hemen kontua adostasunak lortzea da, berriro diot, horren garrantzitsua bazen, defendatu egin behar zenuten. Aukera izan duzue, eta orain ez etorri kontu eske. Egiteko aukera izan duzue.

Joseba Vivanco Retes: gauza asko onartu diren hori, Alderdi Popularraren kasuan izango da, ez dakit, aurkeztu duen portzentajea kontuan hartuz. Gure kasuan zenbait onartu egin dira, beste zenbait apur bat areagotu dira, eta gehienak ukatu egin dira. Eta diodan moduan, onartu direnak logika hutseko kontuak ziren, izan ere, azken lau urteetan ematen ziren zenbakiak doitzea baino ez zen egin behar eta ez zen oso logikoa errealak ez ziren zenbaki batzuekin jarraitzea. Soberakinaren eta burutu nahi diren obra guztien kontu horri dagokionez, behin baino gehiagotan hitz egin dugu. Hoditeria-sare hori guztiori aldatzeak ekarriko duen kostuaren gaia azpimarratzen da behin eta berriz. Zuek guk dakigun berbera dakizue, eta Alderdi Popularrak dakien berbera, obra hori obretako Foru Planari eskatzen zaiola, eta onartzen bada, ziurrenik onartu egingo baita, izan ere, nik ez dut ezagutzen oraindik ukatu diguten Foru Planeko obra bakar bat ere, Aldundiak diru horri dagokionez emango duen diru-laguntza % 90ekoa da. Kostua 600.000, 400.000, 500.000 eurokoa bada, %90, edo % 80 kasurik okerreanean Aldundiaren diru-laguntzatik etorriko da azkenik, beraz diru hori ondo gordeta mantenduko dugu zorroan. Obrak egin daitezkeela hitz egiten ari gara, obrak, konponketak eta gauzak egin daitezke, izan ere, ikusten dugu herria nola dagoen. Izan ere leku askotan, eta kirol zonaldeaz hitz egiten ari gara, utzikeria handia da, urtez urte, eta ez da inbertsiorik egiten. Eta egin daitezkeen gauzak daude eta ez da inbertsiorik egiten. Ez gara hitz egiten ari Udala bakar-bakarrik 500.000 edo 600.000 euroko obra batean sartzeaz. Egin daitezkeen obrez ari gara hitz egiten, 100.000 euroko kostua izan dezaketanak, eta ez gara



sartzen. Josebak zioen “ez, diru-laguntzen zain egon behar dugu”, azken batean diru-laguntzen baitan gaude. Diru-laguntzarik ez badago, ez gara deus mugitzen. Ondo dago diru-laguntzetatik dirua ateratzea baina inbertsiorako ere dirua badaukagu, xahutzeko, xahutu dezagun hori ere, egin ditzagun esku-hartzeak. Herriko jendeari azal iezaiozue hau ez, hau ez, honekin itxaron egingo dugu, hau egingo da, beno, ikusiko dugu. 600 euro Zaraobe Institutuaren aferarako, gero ikusiko ditugu premiak. Eta hor dugu... bada, jendeari azal iezaiozue. Eta gero Aiaraldearen kontua. Zuen esanetan gai horrekin betiko ezabaida dugu. Ez, gure ezezko botoa argudiatzean planteatu ditugun gaietako bat da hori. Harritzen nauena eta arreta ematen didana zera da, ez soilik EAJ alderdiak aurrekontua aurrera ateratzeko, zuk diozun moduan, lehentasuna aurrekontua ateratzea dela, ez soilik hedabide batera, kasu honetan euskarazkoa, bideratutako partida bat kendu, zeinarekin azken urteetan hitzarmen bat zegoen, zeinarekin eskualdeko Udal guztiek hitzarmen bat duten, are gehiago, EAJ alderdiak onartu egiten du Alderdi Popularrak Aiaraldeari betoa jartzeko egiten dion eskakizuna. Izan ere, Alderdi Popularreko Joseba zinegotziak esan duen moduan, akordioan publizitatea ez sartzea barneratzen da. Hori, beste hitz batzuekin esanda, hedabide bati betoa jartzea da. Hau da, hartu eta, nik badakit, izan ere, Eusko Jauriaritzak, EAJ alderdiak, PSOE alderdiak eta abarrek urteetan doan betoa jarri dioten hedabide batean lan egin dut. Eta zuek Aiaraldearekin egingo duzuen gauza bera da. Ez da partida kendu eta euskarazko beste partida batera bideratuko dut, edo euskarazko antzezlanak ekarriko ditut, edo euskaraz den ez dakit zeren ikastaro bat, ez, zuzenean betoa jartzen ari zarete hedabide bati, eta hori ere azaldu egin behar duzue.

Arkaitz San Jose Martinez: Erantzun dezaket? Izan ere... batez ere niri ari zaidalako, edo behintzat Josebak niri begiratu dit esan duenean iaz...

Joseba Elejalde Ribacoba: ah ez, ez...

Arkaitz San Jose Martinez: bai, beno, baina ni izan nintzenez irakurri nuena irakurtzearen arduraduna akats bat egin nuen, idatziz ekartzea, eta ez kontuan hartzea gutako..., beno, gure zinegotzia (emakumea), ez zela etorriko. Haatik, uste dut akatsa hori izan zela eta uste dut horrek bozketa baldintzatu zuela, baina tira, frogatu ezin daitekeen gauza bat da... Atsekabea ez nuen iaz jaso PP alderdiak EAJ alderdiari ez ziola botoa ematen ikustean, atsekabea inbestiduraren egunean jaso nuen. Haren ostean gero gertatuz joan dena espero nuen gutxi gorabehera. Esaten duzue beno, ez zaiola euskarari kentzen berriro inbertituko delako, eta errealtateari buruz zeharo inpartziala den ikuspegi bat helarazten duen hedabide batez hitz egiten da alajaina. Nik, ikastaroetarako diru gehiago bideratu duzue, Joseba, gomendatzen dizut eman dezazula izena euskarakoan eta hedabidea irakur dezazula eta ikusiko zenuke ziurrenera gure eskura dugun eta partzialena den hedabideetako bat dela, izan ere, hain zuzen kaleko kontuez hitz egiten du, eta hori kutsu ideologiko gutxi egon daiteke. Jakina, euskaraz irakurri behar da baina aurki dezakegun gauza anitzenetako bat da. Eta gero Iñigo ez dugula inbertsiorik aurkeztu esaten duzu, tira, hiru urte daramatzagu inbertsioak aurkeztuz. Eta gehienetan ez dituzue gauzatu. Orduan, pentsatzen dugu gure lanean askoz ere garrantzitsuagoa zela aurrekontu arrunta doitzea inbertsioetako kapitulua baino, are gehiago kontuan hartuz inbertsioetarako soberakina erabil daitekeela. Soberakina ezin da beste gauza batzuetarako erabili, beraz gure lana Udalaren kudeaketa arruntera bideratzen dugu, eta zein inbertsio proposatzen ditugun jakin nahi baldin baduzue azken hiru urteetan inbertsioetarako egin ditugun proposamenak irakur ditzakezue. Eta azkenean esaten baduzue soberan egotea oso ongi dagoela, urtero gehiago dago soberan eta, agian kontua izango da aurrekontua handi samar geratzen zaizuela.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni egia esan, inbestiduraren egunean, zu harritu ala ez harritu, egia esan...

Arkaitz San Jose Martinez: ez, atsekabetu egin ninduen, harritu...

Joseba Elejalde Ribacoba: begira, egia esan ni, Jainkoari eskerrak, demokratikoki hautatua izan naiz Udal honetan, nire botoa daukat, eta zorionez, boto horrekin gaur egun, Artziniegako herritarrentzat nire ustez onena dena egin dezaket. Jakina, orduan bat-etortze gehiago nuen EAJ



alderdiarekin Bildurekin izan nezakeena baino, arlo guztietan, bertakoetan, instituzionaletan, ekonomikoetan, sozialetan, jakina, denean. Hori inork ez dezake zalantzan jar. Irrigarria egiten zait Bilduk urteak daramatzalako osoko bilkura honetan zuzeneko diru-laguntzak arbuaiatuz, zuzeneko diru-laguntzak, non Bilduk abstentzioa ematea ondo deritzon. Josebak gezurra esan du, Aiaraldearekin ez zegoen lankidetzaz-hitzarmenik 2017. urtera arte. Aiaraldeak urtez urte diru-laguntza jaso du inolako hitzarmenik gabe. Are gehiago, jadanik Agurtzane Udal honetako alkate zenean, partida hori baztertu egin zen. Gero berriro gaineratu zen. Zergatik? Bilduk eta EAJ alderdiek neurri hori hartu zuten aurrekontu batzuetan, eta gainerako guztiek, demokratikoki zentzuzkoa den moduan, gehienek hala nahi bazuten hala behar zuela ulertu behar izan genuen, eta kito. Aurten Alderdi Popularrak mahaiaren gainean ipini du, Alderdi Popularra duela urte askotik hona eskatzen ari den gauzetako bat delako. Dyaren kontua bezala, Gurutze Gorriaren kontua, eta ondareen inbentarioaren gaia bezala. Orduan, azken batean nik Bildurik galdetzen diot ea zergatik zareten horren garbiak Udalak hitzarmenik ez duen diru-laguntza batzuetarako eta kasu honetan ez zareten horren garbiak. Hau da, ez duzue izerdirik bota Aiaraldeak urtero 1.500 euro kobratzearen alde bozkatzean nahiz eta haiekin hitzarmenik egon ez, aitzitik, Artziniega Txirrindulari Elkartearekin, Udalarekin hitzarmenik ez duen udalerriko beste edozein talderekin, abstentzioa eman duzue. Demokratikoki onargarria da, baina, zentzuzkoa al da gauza batzuetarako bai eta beste gauza batzuetarako hartzen ez duzuen erabaki hori? Euskarazko hedabidea txirrindularitza kluba baino garrantzitsuagoa al da? Nire ustez ez da anitza, zuk anitza dela esan arren. Zuk euskara ikastaroak egiteko esaten didazu, agian egunen batean egin behar dut euskara ikastaro bat, baina nire ustez ez da hedabide anitza. Eta gainera, kontua ez da hedabide anitza ez dela, baizik eta azken batean, mundu ororen finantzazioa jasotzen duten X pertsonak muntatu duten kontua baino ez dela ikusten dut nik. Gauza bera da nik bihar lau lagunekin enpresa bat eratzea, euskaraz egiten dut osorik, eta eskatzen dut arren Aiara herri administrazio guztiek eta beste batzuek, Aldundiak kasu, nire soldata finantza dezatela. Eta nik horri muzin egiten diot. Joseba betoak aipatu dituzu, badakizu zer den beto bat? Betoa Aiara irratia egin zitzaiona da. Aiara irratia kobratu gabe egon zen, edo publizitaterik egiten ez zitzaioala egon zen, Aiara udalerririk bakar batetik euro bakar bat ere ez. Laudio irratia, aldiz bai, zergatik? Bada ustez, eta ustez diot, Aiara irratia ez zelako soka-kide. Ez ditzagun betoak aipatu. Ni errealitatez hitz egiten ari naiz, eta errealitatea da hedabide bat finantzatzen ari garela hiru pertsona bizi daitezten, edo lau, edo bertan lan egiten duten pertsonak bizi daitezten.

Alkatea: nik fiabardura bat besterik ez, izan ere, badirudi Foru Plana hala datorren zer bat dela, eta dirua oldeka sartzeko dela, eta egia da egin nahi ditugun inbertsio nagusiak Foru Planera aurkeztu ditugula, baina ez dakit, nire esperientzia kontuan hartuz, nik ere ez dut Foru Plana sakonki ezagutzen, baina kudeaketan konplexu samarra eta zaila izateaz gain, aurkeztu zenaren gainean nire esperientziak kontuan hartuz, finantzaketarekin zeuden iguripenak eta ondorengo errealitatea aintzatetsiz, bada, bi kasutan, horiek baitira nik ezagutzen ditudan kasuak, obra hau bat eta autokarabaren parkingarena bestea, bada, ez da positiboa izan, izan ere, guk uste genuena baino dezente gutxiago eman ziguten. Hau da, kontuz ibili behar dela, % 90 emango diguten hori, ikusiko dugu. Oraindik ez dakigu, beraz berriro diot, guk soberakina dugu, egia da, 950.000 euroko soberakina dugu, zenbateko handiko inbertsioak egiten ditugu, aurten ere hala jarraituko dugu, zenbateko handiak bideratzen jarraituko dugu inbertsioetarako, eta daukaguna zera da, diru-laguntzen finantzaketarekin lotutako desbideratzeak badaude diru-zaintzako soberakin honekin estaltzea espero dugu, eta jakina egin ditzakegun ekintzetarako finantzaketa osagarria lortzen badugu, jakina, inbertsio txikiagoetarako ere bidera dezakegu dirua, non jarduteko nolabaiteko marjina badugun, eta berezko baliabideekin egin dezakegun. Baina berriro diot, Foru Plana ez da zerutik datorren zer bat. Bozkatzeari ekingo diogu.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:



Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (4);

Onartuta geratzen da, Alkatearen kalitateko botoarekin.

3.- 2017. ekitaldiari dagozkion kredituen judizioz kanpoko aitorpenak onartzea.

“2018KO MARTXOAREN 21EAN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

IKUSIRIK 2018ko martxoaren 20an Idazkaritzak 2017ko ekitaldiko hurrengo kredituak judizioz kanpo aitortzeko prozedurari eta legeria aplikagarriari buruz igorritako txostena:

Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA

Gizarte-ongizaterako 2017ko ekarpenak zuzentzea

Erregistro-data: 2017ko azaroak 30, 3228 zenbakiduna.

Zenbatekoa 4.987,43 €.

Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA.

Gizarte segurantzako 2013-2017 bitarteko artxiboko ekarpenak zuzentzea

Erregistro-data: 2017ko abenduak 27, 3469 zenbakiduna.

Zenbatekoa 15.533,17 €.

Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA.

2017ko gastu orokorretako ekarpenen erregulazioa

Erregistro-data: 2018ko otsailak 7, 384 zenbakiduna.

Zenbatekoa 4.522,61 €.

Hirugarrena: INSEL. INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ETA KOMUNIKAZIOAK

2017/351 faktura, 2017/12/30ekoa. Kontzeptua: Gabonetako apaingarriak

Erregistro-data: 2018ko martxoak 5, 619 zenbakiduna.

Zenbatekoa 2.800,00 €.

Hirugarrena: INSEL. INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ETA KOMUNIKAZIOAK

2017/624 faktura, 2017/12/30ekoa. Kontzeptua: erakusketa-gelaren argiztapena Museoa

Erregistro-data: 2018ko martxoak 5, 624 zenbakiduna.

Zenbatekoa 8.520,22 €.

KONTUAN HARTUZ 2018ko martxoaren 20an Kontu-hartzaitzak igorritako txostena, aitorpen hori zilegi zela adierazten zuena.

KONTUAN HARTUZ Alkatetzak horri dagokionez egindako proposamena, eta ikusirik Udalbatzari apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 60.2. artikulua araberako esleitzen zaion eskuduntza, 2018ko martxoaren 21ean Ogasun arloko Informazio-batzordeak erabaki du Udalbatzari proposatzea hurrengo

AKORDIOA



LEHENA. Hurrengo kredituen judizioz kanpoko aitortpena onartzea, 2017. ekitaldiari dagozkionak.

Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA
Gizarte-ongizaterako 2017ko ekarpenak zuzentzea
Erregistro-data: 2017ko azaroak 30, 3228 zenbakiduna.
Zenbatekoa 4.987,43 €.

Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA.
Gizarte segurantzako 2013-2017 bitarteko artxiboko ekarpenak zuzentzea
Erregistro-data: 2017ko abenduak 27, 3469 zenbakiduna.
Zenbatekoa 15.533,17 €.

Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA.
2017ko gastu orokorretako ekarpenen erregulazioa
Erregistro-data: 2018ko otsailak 7, 384 zenbakiduna.
Zenbatekoa 4.522,61 €.

Hirugarrena: INSEL. INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ETA KOMUNIKAZIOAK
2017/351 faktura, 2017/12/30ekoa. Kontzeptua: Gabonetako apaingarriak
Erregistro-data: 2018ko martxoak 5, 619 zenbakiduna.
Zenbatekoa 2.800,00 €.

Hirugarrena: INSEL. INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ETA KOMUNIKAZIOAK
2017/624 faktura, 2017/12/30ekoa. Kontzeptua: erakusketa-gelaren argiztapena Museoa
Erregistro-data: 2018ko martxoak 5, 624 zenbakiduna.
Zenbatekoa 8.520,22 €.

BIGARRENA. 2018ko ekitaldiko Aurrekontuaren kargura, dagokion kreditua aplikatzea, gastuari aurre egite aldera, behin 2018ko egungo aurrekontuan dagokion aldaketa burututa, 2017ko kreditua 2018ra gaineratzeko espedientea eta 1/2018 kreditu gehigarriaren espedientea onartu ostean”.

Alkatea: hau 2017ko ekitaldiko betebeharrei dagokio, 2018an etorri direnak eta, horregatik, osoko bilkuran onartzeko bozkatzen da. Ezer esateko? Bozkatu egingo dugu.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.



4.- 7 eta 8 /2017 eta 1 eta 2 /2018 zenbakidun eragozpenak altxatzea.

“2018KO MARTXOAREN 21EAN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

7 eta 8 / 2017 eta 1 eta 2 / 2018 ZENBAKIDUN ESKU-HARTZEEN ERAGOZPENAK ALTXATZEA

Ikusirik Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bategina onartzeko martxoaren 5eko Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuan, zera esaten dela:

«Kontu-hartzailetzaren funtzioa betez organo kontu-hartzailea aztertutako egintzen, dokumentuen edo espedienteen funtsarekin edo moduarekin ez ados agertzen bada, bere eragozpenak idatziz agerrarazi beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu aurretik».

Ikusirik, era berean, Artziniegako Egikaritze Aurrekontuaren Udal Arauko 55. artikulua eta hurrengoak.

Ikusirik eragozpen hauek

Eragozpen zenbakia	Data	Gaia
7-2017	2017-12-28	Transferentzia Aiarako Kuadrillari “Gizarte-ongizaterako 2017ko ekarpenak zuzentzeko”. Zenbatekoa: 4.987,43 €. 3228 zenbakidun sarrera-erregistroa, 2017ko azaroaren 30ekoa
8-2017	2017-12-28	Transferentzia Aiarako Kuadrillari “Gizarte segurantzako 2013-2017 bitarteko artxiboko ekarpenak zuzentzeko”; zenbatekoa: 15.533,17 €. 3469 zenbakidun sarrera-erregistroa, 2017ko abenduaren 27koa
1-2018	2017-03-20	Transferentzia Aiarako Kuadrillari “2017ko gastu orokorretako ekarpenen erregulaziorako”; Zenbatekoa 4.522,61 €. 384 zenbakidun sarrera-erregistroa, 2018ko otsailaren 7koa
2-2018	2017-03-20	180941 faktura, 2018ko martxoaren 6koa, SIMAk igorria, 2.757,77 € zenbatekoaz 680 zenbakidun sarrera-erregistroa, 2018ko otsailaren 7koa

Kontu-hartzailetzak eginak, non hurrengo legezko manua ez dela aipatu adierazten baita:

- Kreditua aski ez izatea oinarritzat hartzen denean edo proposatutakoa egokia ez denean.
- Ordainketa egiteko aginduak ekarri zituzten egintzak fiskalizatu ez direnean.
- Espedienteen funtsezko betekizun edo izapideak agertzen ez direnean.
- Eragozpena obra, hornidura, erosketa eta zerbitzuen gaineko egiaztapenetik eratortzen denean.

Kontuan hartuz Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bategina onartzeko martxoaren 5eko Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuaren 216.2. artikuluekin bat etorritik, espedienteko izapideak bertan behera geratu behar direla eragozpen horiek konpontzen diren arte.

Kontuan hartuz eragozpena gastuena bada eskumena Udalbatzak izango duela eta diru-sarrerena bada Alkatearena izango dela diru-sarreraren izapidea bertan behera utzi gabe.

Kontuan hartuz gastu eta ordainketen antolatzaileak, edozein kasutan, eta Tokiko Erakundeetako kontu-hartzaileak, desegokitasuna idatziz ohartarazten ez dutenean, baimentzen



duten gastu ororen eta nahiko krediturik gabe aitortzen, likidatzen edo ordaintzen duten obligazio ororen gaineko arduradun izango direla pertsonalki.

Ikusirik Alkatezak 2018-03-20an onartutako 1-2018 zenbakidun Kreditu Gehigarriaren espedientea, non, besteak beste, jarraian zehazten diren aurrekontu-aplikazioetarako zenbateko hauek gaitzen baitira:

Aurrekontu-aplikazioa		ZENBATEKO
230.421.00 5	GIZARTE-ONGIZATERAKO 2017KO EKARPENAK ZUZENTZEA AIARAKO KUADRILLA.	4.987,43
920.421.00 3	GIZARTE SEGURANTZAKO 2013-2017 BITARTEKO ARTXIBOKO EKARPENAK ZUZENTZEA AIARAKO KUADRILLA	15.533,17
942.421.00 1	2017KO GASTU OROKORRETA KO EKARPENEN ERREGULAZIOA AIARAKO KUADRILLA.	4.522,61
341.211.00 1	GARAY PLAZAKO PILOTALEKUKO KRISTALAK KONPONTZEKO OBRA	14.396,12
GUZTIRA		40.639,33

Ikusirik Osoko Bilkura honetako aurreko Erabakian honi dagokion kredituaren judizioz kanpoko aitortpena onartu zela:

GIZARTE-ONGIZATERAKO 2017KO EKARPENAK ZUZENTZEA AIARAKO KUADRILLA.	4.987,43
GIZARTE SEGURANTZAKO 2013-2017 BITARTEKO ARTXIBOKO EKARPENAK ZUZENTZEA AIARAKO KUADRILLA	15.533,17
2017KO GASTU OROKORRETA KO EKARPENEN ERREGULAZIOA AIARAKO KUADRILLA.	4.522,61

2018ko martxoaren 21ean egindako saioan modu baliozkoan elkartuta Lurraldeko Informazio-batzordeak Udalbatzari proposatu zion har zezala honako

AKORDIOA

LEHENA. Kontu-hartzaitzak egindako hurrengo eragozpenak altxatzea eta espedienteen izapidearekin jarraitzea.

Eragozpen zenbakia	Data	Gaia
7-2017	2017-12-28	Transferentzia Aiarako Kuadrillari "Gizarte-ongizaterako 2017ko ekarpenak zuzentzeko". Zenbatekoa: 4.987,43 €. 3228 zenbakidun sarrera-erregistroa, 2017ko azaroaren 30ekoa
8-2017	2017-12-28	Transferentzia Aiarako Kuadrillari "Gizarte segurantzako 2013-2017 bitarteko artxiboko ekarpenak zuzentzeko"; zenbatekoa: 15.533,17 €. 3469 zenbakidun sarrera-erregistroa, 2017ko abenduaren 27koa
1-2018	2017-03-20	Transferentzia Aiarako Kuadrillari "2017ko gastu orokorretako ekarpenen erregulaziorako"; Zenbatekoa 4.522,61 €. 384 zenbakidun sarrera-erregistroa, 2018ko otsailaren 7koa
2-2018	2017-03-20	Fak. 180941 faktura, 2018ko martxoaren 6koa, SIMAk igorria, 2.757,77 € zenbatekoaz 680 zenbakidun sarrera-erregistroa, 2018ko otsailaren 7koa



BIGARRENA. *Kontu-hartzailatzat aurreko Akordioaren berri ematea dagozkion kontabilitateko izapideak egin ditzan”*

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue? Bozkatzeari ekingo diogu.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

5.- 2017ko laugarren hiruhilekoko egikaritze-aurrekontuaren berri ematea.

Alkatea: hori da kontuaren ematea, hor duzue dokumentazioa, 2017ko ekitaldiko likidazioaz ere hitz egin dugu, orduan zuek horren berri izan dezazuen.

Berlaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

6.- EH-Bildu eta EAJ alderdiek Katalunian izandako atxiloketa eta espetxeratzeei buruz egindako baterako mozioa.

Inmaculada Vivanco Retes: irakurri egingo dut. “KATALUNIAKO GERTAEREI ETA KATALUNIAKO ORDEZKARI POLITIKOEN AURKA HARTUTAKO NEURRIEI BURUZKO DEKLARAZIOA. DEKLARAZIOA:

1. Artziniegako Udaleko EAJ eta EH Bildu udal taldeek erabateko gaitzespena azaltzen dute Jordi Turull, Carme Forcadell, Raul Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassen aurka emandako atxiloketa- eta espetxeratzea-aginduaren aurka, Carles Puigdemonten atxiloketaren aurka bezala, guztiak arrazoi politikoak direla medio, funtsezko printzipio demokratikoak larriki urratzea suposatzen baitu.

2. EAJ eta EH Bildu udal taldeek aurrez aipatutako arrazoiengatik atxilotu eta espetxeratutako pertsona guztiekiko babesa eta elkartasuna adierazten dute, Kataluniako gizarte osora hedatu nahi duten babesa eta elkartasuna, eta bidegabeki atxilotu eta espetxeratutako pertsona horiek berehala aske uzteko eskatzen dute.

3. Artziniegako Udaleko EAJ eta EH Bildu udal taldeek Kataluniako herritarrek hautatutako karguen espetxeratze jarraitua salatzen dute, zeintzuei beren eskubide politikoak erabiltzea galarazten ari baitzaie, Jordi Sanchezen kasuan ekintza Batuen Giza Eskubideen Batzordeak agerian ipini duen moduan. Halaber, Amnistia Internacional erakundeak esku-hartze judizial horiei eta ezohiko epaitze-prozedurak egiteko moduari buruz egindako balioespen kritikoa bere egiten dute zuhurtzia osoz.



4. Artziniegako Udaleko EAJ eta EH Bildu udal taldeek eragindako aldean artean eztabaida zintzo, inklusibo eta berehalakoa irekitzeko deia egiten dute berriro, egoera desblokeatu, gatazka ahuldu, 155. artikulua aplikazioa bertan behera geratu eta Kataluniako instituzioen funtzionamendurako normaltasun demokratikoa berreskura dadin, oinarritzat herritarren borondatea hartuz.”

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue?

Joseba Vivanco Retes: bai, gure aldetik, soilik mozioa aprobetxatu EH Bildu taldetik Kataluniako Errepublikaren defentsarako batzordeekin gure elkartasuna adierazteko, zeintzuei Espainiako Estatuak dagoeneko guztion artean ezaguna den, batez ere hemen, “dena ETA da” aplikatzea erabaki duen eta” dena ETA da” horretan gaur Kataluniako desobedientzia zibilari tokatzen zaion eta bihar inork ezin esan jubilatuei tokatuko ez zaienik, astelehenero kaleetan elkartzen diren jubilatuei eta pentsiodunei.

Joseba Elejalde Ribacoba: egia esan, honekin gainera EAJ eta EH Bildu alderdiei egiaz zer axola zaien garbi geratzen zait. Halako mozio mota bat, politikoa, Kataluniakoa, dagoenean, horren urrun eta horren hurbil gaude, baina nire ustez Artziniegako Udalean, Osoko Saio honetara mozio politiko bat ekarri behar al dugu? Mozio politiko bat, non guregandik harago dauden estamentu zenbait dauden, eta horiek erabaki beharko dute, horiek izango dira Katalunian gertatzen ari denaren inguruko erabakiak hartu beharko dituztenak. Argi dago, hori da EAJ eta EH Bildu alderdiei axola zaiena, ez zaizkie aurrekontuak axola, ez dira ados ipintzen aurrekontuekin, ez zaie axola, zergatik? Artziniegako herritarrak ez zaizkielako axola, baina Katalunian gertatzen ari dena bai axola zaie, beren DNAko parte delako. Askok sentitzen dut zuongatik, baina nik egia esan, gai honen inguruan, nahiago dut aurrekontuak onartu eta epaileek, fiskalek eta gainerako organoek Katalunian egin behar dutena egin dezaten utzi, gertatu denaren moduko matxinada baten aurrean. Mozioan esaten duzue Katalunian burutu den polizia-operazioaren aurka zaudetela, arduradun politiko legitimoak erregistratu eta atxilotzea eragin duena. Argi dago modu legitimoan onartu zizutela baina tira, gaur egun gehienek legeak urratu egin dituzte. Baina, jaunok, legearen aplikazioa ez da soilik Katalunian gertatzen, herrialde honetako eta beste herrialde batzuetako instituzio demokratiko guztietan baizik. Legea urratzen duen hura atxilotu egiten da. Zoritxarrez, legitimitatez hautatutako arduradunek legea urratu izanagatik asko izan dira egindako atxiloketak eta guztiok txalotu ditugu atxiloketa horiek. Zuei ongi iruditzen zaizue legea aplikatzea prebikazioa, boterearen abusua, borondateen erorketa, birkalifikazio lotsagabeak edota ustelkeria gauzatu dituztenei, baina Katalunian legea betetzeko ahalegina egiten denean, badirudi zuek ukatu egin behar duzuela ezinbestean eta asaldatu egiten zarete. Alarma soziala Katalunian une honetan gertatzen ari dena da, non 3.000 enpresek alde egin baitute. Alarma soziala Katalunian gertatzen ari dena da, gizartea erabat bananduta dagoelarik. Legea ez da jendeari arrotz zaion botere baten inposaketa arbitrarioa, ezta urrik ere. Legeak tresna dira, gure buruari emandakoa elkarrekin askatasunean bizitzeko eta gure desadostasunak modu baketsu eta bidezkoan kudeatzeko. Horregatik, inork ez dezake ulertu haren gainetik kokatzea, eta horregatik botere publiko baten aldetik legeari desobedientzia egitea demokraziaren kontrakoa da zeharo. Inposaketa bat da, bidegabekeria bat, jendearen eskubideen aurkako egintza bat, eta bizikidetzaren aurkako eraso. Disidentzia babesten duten arau juridikoak mespretxatzen dituen desobedientzia ekintza totalitario bat da. Urriaren 1eko erreferenduma joan den irailaren 7an onartu zen Kataluniako Parlamentuan, parlamentuko arau funtsezkoenak urratuz, oposizioko taldeak isilaraziz eta Kataluniako instituzioek eurek legezkotasunari buruz egindako ohartarazpenei entzungor eginez, hots, Parlamentuko bertako legeak urratu zituzten. Espainiako Konstituzioa eta Kataluniako Estatutua bera indargabetzea da asmoa atzeko atetik, beharrezkoak diren botoak izan gabe eta legeak aurreikusitako mekanismoei muzin eginez. Botoa demokraziaren sinonimo da soilik legearen arabera egiten denean eta guztion eskubideak errespetatuz, ezin da legea ez betetzeko botoa eman. Hura



bidezko metodoak baliatuz aldatzeko ematen da botoa, modu inklusiboan, gizartearen aniztasuna entzun eta errespetatuz. Era berean, ezin da demokraziatzat hartu herritarrei proiektu kanporatzaile bat inposatzeko botoa ematea. Soilik legea betetzeari uko egiteagatik mehatxuak, iraunak eta jazarpenak jasaten ari diren Alkate, Zinegotzi, Funtzionario eta Polizien alde egin behar du Gobernuak. Inorentzat ez da onuragarri tentsio hau eta desobedientzia giro hau, ezta justiziari eta legeari egiten zaion etengabeko erronka hori, Kataluniako gizartean eragin duen haustura are gehiago areagotzea baino bilatzen ez duena. Azken atxilotetei dagokienez, Joseba, talde horiei buruz, zuk ongi esan duzun moduan hortik hasi eta jubilatuen atxilotetarekin amaitzen da. Izan ere, hemen, zoritxarrez edo zorionez, herrialde honetan, memoria ahula daukagu, eta zorionez edo zoritxarrez seinlatu egiten zen, agian ez zizuten borraz joko, baizik eta autoaren azpian bonba ipintzen zizuten edo tiro bat ematen zizuten. Eta horrela hasten da guztia. Batzuk adierazi egiten dute, Llarena Epaileari etxea adierazi dioten moduan, bere andreak non lan egiten duen adierazi duten moduan, itxura batean mugimendu independentistaren aurka doan guztia adierazi egiten da, errepublikaren xerka, ez dakit, bikaina eta gardena izango delakoan, adierazten duten pertsona horiek dira, gero, une jakin batean disparatu egiten dutenak. Eta hori da ekiditen saiatu beharrekoa. Erabat demokratikoa den Espainia batean hori gerta dadin.

Alkatea: bozkatzeari ekingo diogu.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Iñigo Gomez Unzueta eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (2)

Aldeko botoak:

Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (2); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu alderdiko kideak (4);

Onartuta geratu da.

7. puntua ezabatu egiten da, izan ere, EAJ taldeak aurkeztutako Mozioa EH-Bildu taldeak aurkeztutakoarekin batera jorratu da.

8.- Artziniegako herritarrek Artziniega-Okondo 16. lineako autobus-garraioagatik ordaintzen duten tarifari buruzko mozioa.

Alkatea: irakurri egingo dut. "Artziniegako herritarrek eta Arabako lurraldeko hiriarteko garraio-sareko Artziniega/Okondo 16. lineako erabiltzaileek adierazten dute:

Gaur egun, berriki izandako igoeraren ondotik, Artziniega jatorri eta jomuga duten 16. lineako ibilbideen tarifa 1,80€koa dela (1,44€koa BAT txartelarekin), eta bide horretan dauden gainerako herrien (Amurrio, Arespalditza, Ibage, Izoria, Audio, Okondo, Llanteno, Menagarai eta Murga) arteko ibilbide guztien tarifa 1,40€koa dela (1,12€koa BAT txartelarekin).

Aldea ezin dela justifikatu kilometrotan dagoen distantziagatik. Hala, Audio eta Llantero arteko bidaia baten (23,2 km) prezioa 1,40 eurokoa da eta Artziniega eta Amurrio arteko bidaia baten (14,8 km) prezioa 1,80 eurokoa. Gainera, lineako erabiltzaileen artean asko ikasleak dira, gehienak Artziniegakoak, egunero garraio bide hori hartu behar dutenak Institutura joateko. Horrek, urtearen amaieran, gainkostu adierazgarria suposatzen du horientzat.

Ildo horretatik, sinadura-bilketa kanpaina bat jarri da abian linea horretako tarifak ipintzeko irizpideak berrikusteko, Artziniega jatorri eta jomugatzat duen ibilbidearen kostua gainerako



ibilbideetako kostuarekin parekatzeko xedez, modu horretan garraio publiko irisgarri eta solidario baten alde eginez.

Artziniegako Udalak, egoeraren berri izanik, herritarren ekimen horrekin bat egiten duela adierazten du eta konpromisoa hartzen du Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Saileko arduradunari bertako herritarren eskaria helarazteko, jasotako sinadurekin batera”.

Unai Gotxi Kastrexana: beno, jakina, guk EH-Bildu taldetik mozio hau babestu egingo dugu, izan ere, besteak beste, Arabako garraio planean egin genituen alegazioetako bat izan zen, egin zirenean Arabako Foru Aldundiak ezestea erabaki zuelarik. Horrenbestez, orain, espero dugu, tarifak aldatzea lortzeko beste saiakera honekin, iritzia alda dezatela.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni erabat ados ekimenarekin.

Alkatea: halaxe da, Udaletik aurkeztu zen alegazio bat izan zen eta Aldundiak hasiera batean ezetsi egin zuen. Orduan, ikus dezagun orain, eta funtzionatzen ari dela ikusita, martxan dagoela, iritzi hori samurtzen duten pixka bat.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

9.- Pentsioei buruzko mozioa.

Alkatea: irakurri egingo dut. “Arabako Pentsionistak Lanean” Elkartearen proposamena. Udalerrri bakoitzeko Udalaren mozioa alderdi politikoei dei eginez lehenbailehen onar dezaten. Mozioa:

Arabako Pentsionistak Lanean elkartetik Artziniegako Udaleko osoko bilkuran Mozio hau jorratu dadila eskatzen dugu, eta udal taldeei hura onartzeko dei egiten diegu.

Pentsiodunak urteak daramatzagu gure pentsioetan erosahalmena galduz. Pentsioetan Estatuko gobernuek, hala PP alderdiak nola PSOE alderdiak, egin dituzten aldaketek nabarmen kaltetu gaituzte. Gu gara, pentsiodunak, murrizketak jasaten ditugunak, nekez iristen gara hil amaierara eta zenbaitetan berogailua piztu ere ezin dugu egin, eta bitartean, besteak beste, bankuarentzat, elektrikentzat eta enpresariarentzat badago dirua.

Pentsiodun gehienak txirotasun-atalasearen azpitiko zenbatekoa kobratzen dugu eta gero eta zailagoa egiten zaigu gure bizitzako azken urteetan duintasunez bizitzea, horrenbeste urte lanean eta kotizatzen eman eta gero. Badirudi horrek guztiorrek ez duela axola politikariarentzat, izan ere, ez dute ia herritarren % 25ak, pentsiodunok, bizi dugun egoera hau arintzeko neurririk hartzen.

Ez da kontuan har gaitzatela, duintasunez bizi ahal izateko gutxieneko pentsioak bermatzeko, eskatzen dugun lehen aldia. Ezin dugu aipatu gabe utzi pentsio okerragoak dituzten pertsona horietan gehienak emakumeak direla, zigor bikoitz onartezina pairatzen dutenak.

Horregatik guztiagatik, eta BORONDATE POLITIKO kontua dela iritzita, bada, lehen aipatu dugun moduan, beste gauza batzuetarako dirua bada, UDALARI ESKATZEN DIOGU:



1- Pentsioen % 0,25eko igoera miserablea uka dadila eta horien erosahalmena mantentzea eskatu dadila.

2- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea eska dadila txirotasun-atalasetik irteteko dagokion moduan, Euskal Herriari dagokionaren arabera, Europako Gizarte Gutunean ezartzen denez (batez besteko soldata haztatuaren % 60) eta hori zilegi ez den bitartean Gasteizko Gobernuari eskatzea pentsiodun guztiak hileru zenbateko horretara iristeko beharrezkoa den osagarria ezar dezala.

3- Euskal Herrirako pentsio publikoak eta adin nagusiko pertsonak gero eta gehiago behar duten beharrezko arreta bermatzeko Gizarte Babes eta Segurantzako Sistema bat ezar dadila.

4- Datorren urtean, 2019an, aplikatu beharko litzatekeen eta pentsioak nabarmen eta berriro murriztea ekarriko duen iraunkortasun-faktorearen aplikazioa ukatu dadila.

5- Estatuko Gobernura eta Gasteizko Gobernura Udal honek hartutako akordioak helaraz daitezela”.

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue?

Arkaitz San Jose Martinez: gai horretan gure jarrera argia da, pentsiodunek beren eskubideen alde borrokatzearen adibide argia eman digute, ez dezagun ahantzi pentsioak soldatetako zergekin eskuratutako eskubide bat dela, inor ez zaizu ezer oparitzen ari, eta kotizatu dena jasotzea baino ez dela. Uste edo ulertzen dugu kudeaketa egokiena pentsioen berezko kudeaketa izatea litzatekeela, non Euskadik Gizarte Segurantzaren kudeaketa izango lukeen osorik. Bitartean, eta gai hori jorratzen den arte, Gizarte Segurantzaren kudeaketaren eskumena beregain har dadila, izan ere, uste dugu horrek pentsioak banatu eta kudeatzeko orduan eraginkorrak izatea bermatuko lukeela. Edozein kasutan, Arabako Pentsionistak Lanean elkarteak egiten dituen eskaera guztiekin bat egiten dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik, ezer baino lehen, nire elkartasuna adierazi nahi dut pentsiodunekin, batez ere pentsio baxuenak dituzten pentsiodunekin, batez ere, ia barregarriak diren alarguntsa-pentsioak kontuan hartuz. Nik hainbat gauza ulertzen ditut, egoera txarra bizitzen ari diren pentsiodunek kalean adierazteko proposamen hori gertakizun bat da eta errealitate bat, eta inork ez dezake ahantzi. Eta ni agian ez nintzateke KPI indizera ere joango, % 3, % 6 edo % 10 batera joango nintzateke, izan ere, agian, bidezkoa da hilean 400 euro kobratzera ere iristen ez diren pentsiodun horiek 600 eurora iritsi ahal izatea. 1.080 euroko zenbatekoa ez dakit zilegi den une honetan Gobernuaren batean. Gehienbat, zoritxarrez, Espainian, gero eta jende gutxiago dagoelako lan egiteko adinean, eta pentsiodunak gero eta gehiago dira. Eta zaila da oreka hori mantentzea. Gero eta gutxiago kotizatzen da gizarte segurantzaren, eta hori azken hiru urteotan hiru milioi enplegu berreskuratzea lortu dugula, baina uste dut aztertu beharreko zerbait dela, eta Toledoko Itunean aztertu behar da. Eta ez dizuet aspertu nahi baina argudioa ahalik eta laburren ematen saiatuko naiz. “Proposamenak eta ekarpenak dagokion lekuan egin behar dira, Toledoko Itunaren esparruan. Ez da ulergarria esatea Toledoko itunean adostasuna bilatzen dela eta, aldi berean, Espainiako Udal guzti-guztietan aldebakarreko mozio bat aurkeztea, eta ez naiz mozio honetaz hitz egiten ari, baizik eta beste alderdi politiko batzuek maila nazionalean gai honekin, finean, politikoa, egiten ari direnari buruz. Mozio horretan dagoeneko izapidean diren gainerako proposamenak barneratzen dira, helburu nagusi modura Alderdi Popularrari eta Gobernuari eraso egitea izateaz gain. Toledoko Itunaren barruan, bertan aurkeztu behar baitira proposamenak, Toledoko Ituneko gomendioak berritzeko akordio bat dugu martxan. Horrek behar du izan lehentasuna eta bertara bideratu behar dira proposamen egoki eta zilegiak, alderdikeria baino bilatzen ez dutenetik ihes. Legegintzako 5/13 Errege Dekretuko erretratu aurreratuaren erregulazioa eta iraunkortasun-faktorea arautzeko 23/2013 Legea bertan behera uzteari dagokionez, gizarte-segurantzako pentsio-sistemaren iraunkortasun-faktoreak eta errebalorizazio-indizea arautzeko Legearen helburua pentsio-sistema bermatzea da. Jakina, bere garaian ordaindu zutenek, zoritxarrez, ez



zuten bere pentsioa ordaindu, bere gurasoena, bere aiton-amonena eta abar ordaindu zuten. Orain, lanean gaudenoi, gure gurasoen, osaba-izeben edota lagunen pentsioak ordaintzea dagokigu, lan egin duen eta erretiro hori merezi duen jende horrena. Eta hemendik urte batzuetara beste belaunaldi batzuek gaur hemen eserita gaudenon erretiroak ordaindu beharko dituzte. Baina orekarik ez badago, hori ezinezkoa izango da. PP alderdiak pentsio-sistema iraunkor, ekitatibo eta solidario baten alde egiten du. Pentsioen erreforma bat onartu da, non legez ezartzen den beti igo egingo direla, eta orain arte hori ez zen horrela egiten. % 0,25eko minimo bat errebalorizatzen ziren eta garai oparoetan eguneratu egiten ziren KPI indizea gehi 0,50 puntutan. Pentsioak ezingo dira izoztu, eta hori horrela da Legez, modu arbitrarioan, 2011n Gobernu Sozialistarekin gertatu zen eran. Gaur egun Espainian pentsio gehiago ordaintzen dira, pentsiodun gehiagori, eta inoiz baino handiagoak. Mundu osoko gizarte-segurantzako sistema onenetakoa dugu. Sistema zabal eta eskuzabala da. Erretiro aurreratuetan eta partzialetan ere erreformak egin ditugu, helburu argi batekin, uneoro egiazko adina legezko adinera egokitzea. Pentsioetako erosahalmena bermatzeari buruz horiek KPI indizearen arabera eguneratzea berreskuratuz. 2011. urtearen amaieran, duela 6 urte baino gehiago, pentsioak izoztuta zeudela aurkitu genuen, enplegua % 2ko erritmoan suntsitzen zen bitartean eta erreskatearen mehatxuarekin, orduan mehatxu indartsua zena gure herrialdean. Une hartan Rajoy presidentek hiru erabaki hartu zituen, garrantzitsuak izan direnak gizarte-segurantzak urte hauetan izan duen ibilbideari so. Lehenik eta behin, neurri garrantzitsuena aurreko Gobernuarekin izoztuta aurkitu genituen pentsio horiek hasieratik igotzea izan zen. Bigarrenik, Espainiaren erreskatea saihestea, izan ere, horrek pentsiodunek erosahalmena % 20-40 bitartean galtzea suposatuko luke, eta hirugarrenik, gizarte-segurantzako sistemako kontuen eskatea iraultzeko enplegua tresnarik onena bihurtzea. Arestian aipatu dudan moduan, 3 milioi enplegu lortu ditugu. Horren inguruan lan egiten jarraitu behar da eta 2020rako 20 milioi enplegutara iristea lortu behar da. Azken Gobernu Sozialistak 2011n pentsioak izozteak gure historia berrian erosahalmenari dagokionez galera handiena ekarri zuen. 2.060 milioi euro. Eta hori, modu deigarrian, erreserba-funtsean 66.000 milioi euro zeudenean egin zen. PP alderdiaren Gobernuak, bere neurriekin, pentsiodunek denbora horretan zehar erosahalmena mantentzea lortu du. Pentsioetan erosahalmena mantendu egin da krisia hasi zenetik, zehazki % 0,02 irabazi dute, badakit portzentaje irigarria dela, baina izoztuta egotetik % 0,02 irabaztera Espainian izan dugun krisiarekin..., urte guztietan zehar prezioen indizearen batez besteko tasa aplikatu ondoren. Espainiak modu inklusibo ea sozialean irten nahi izan du krisitik. Funtsean, egoera ahulenean zeuden horiengan pentsatu dugu. Gaur egun, Estatuko aurrekontu orokorreko 100 euro bakoitzeko, 40 gizarte gaitetara bideratzen dira. Pentsioen errebalorizazio-indizeak gora egingo du urtero eta legez egingo du gora, sistemako diru-sarrera eta gastuen arabera. PFEZ zergak % 0,25eko errebalorizazio-balio minimoak izango ditu eta KPI indizeak errebalorizazio maximoa gehi 0,50 puntu. Pentsioen eredu horiek mantendu ahal izateko ezinbestekoa izan zen 2012an Espainiako erreskatea ez onartzea. Horrek pentsioak jaistera behartuko gintuzke, aurrez esan dudan moduan, % 15-40 inguruan, Irlanda, Grezia edo Portugalen gertatu zen moduan. Gaineratu behar da Espainian, eta ez da kontsolagarri, izan ere, esan dut nire ustez pentsioak orain kobratzen dena baino % 10-15 handiagoak izan beharko lirakekeela, Espainian erretiratuen errenta ELGEko herrialdeen batez bestekoaren gainetik dagoela. Iraunkortasun-faktorea baztertzeari dagokionez. Iraunkortasun-faktoreak erretiroaren pentsioak bizi-itxaropenaren bilakaerarekin lotzen ditu, antzeko kontribuzioak dituzten belaunaldi ezberdinek pentsio baliokideak jaso ditzaten beren bizitzan zehar. Iraunkortasun-faktore hori 2019an sartuko da indarrean eta 5 urtetik behin berrikusiko da, eta horrek zera suposatzen du, kontribuzio bera denean, Espainiako herritar batek pentsio berdina jasotzea bere bizitzan zehar bizi-itxaropen handiagoa kontuan izanik. Gaineratu behar da pentsio minimoetan ez duela eraginik izango. Sistemako diru-sarrerak areagotzeari dagokionez. Pentsio-sistemako bermea enpleguarekin lotuta dago eta gaur egun Espainian enpleguaren hazkundea handiagoa da pentsioen hazkundea



baino. 2011n sisteman sartzen zen pentsio berri bakoitzeko hiru enplegu suntsitzen ziren. 2017an sisteman sartu den pertsona berri bakoitzeko 6,3 enplegu sortu dira. Horri esker, 2017an pentsioen % 94 gizarte-segurantzako kotizazioekin ordaintzen da. Enplegu gehiagorekin afiliatu gehiago eta hazkunde handiagoa. Gizarte-segurantzaren sistemako finantza-egonkortasuna berreskuratu egingo da. Horixe da gizarte-politika onena, enplegua sortzen duen politika. Enplegua, zalantzarik gabe, gure pentsio-ereduaren bermearen gakoa da, etorkizunera so. Zerbitzuaren izaera babeslea hobetu eta erreserba-funtsaren kudeaketa hartako XXXXXX hobetuz modernizatzeari buruz. Erreserba-funtsa 2000. urtean eratu zen. Urte hartan egin zen lehen ekarpena, Toledoko ituneko 2 zenbakidun gomendioa betez, parlamentuko indar guztiek sinatuta. Ez zen eratu, inola ere ez, Gobernu Sozialistak 1989an egindako gizarte-segurantzaren erreformaren ondorioz. Gizarte-segurantzaren superabitarekin elikatzen da. Ez dugu ahantzi behar Espainian gizarte-segurantza dela Estatuko gizarte-babeserako lehendabiziko sistema. 2011. urtean PP alderdia gobernura iritsi zenean pentsioak izoztuta aurkitu zituen eta 7.000 milioitik gorako defizit batekin, hau da, zenbaki gorritan zegoen pentsio-sistema bat hartu genuen oinordetzan. Pentsioak bermatuta daude. Sistemako funts gehigarriak pentsioak zehatz-mehatz ordaindu behar direnean erabiltzeko daude. Gobernuak ez ditu pentsioak izoztuko gobernu sozialistak egin zuen moduan. Sozialistek egin zuten bakarra defizita ekartzea, pentsioak izoztea eta Espainiako herritarrari urduritasuna sorraraztea izan zen. Zapateroren gobernuak sistemaren erreserbara jo behar izan zuen, baina ez modu garden eta neurrizkoan, orain egiten den moduan, erreserba-funtseko erabilera bakoitzaren berri emanez, baizik eta horren gardena ez zen mekanismo batekin sistemako soberakinak funts horretan ez sartuz eta diru-zaintzan mantenduz inori ezer aipatu gabe erabiltzeko". Jarraitu dezaket, baina uste dut, aurrez esan dudana moduan, badela organismo bat, hots, Toledoko Ituna, organismo horretan alderdi guztiak daude ordezkaturik, nire ustez bertan egin behar dituzte proposamenak alderdi guztiek erretiratuek pentsio duina izan dezatela lortzeko, eta pentsio duina diodanean horietako askok guztira heltzeko moduko pentsioak diot... berogailua, argia, ura, etxe duin bat eta abar. Horregatik, ados nago planteamenduekin, gertatzen dena da aipatu dudana guztiagatik gai horretan abstentzioa emango dut, izan ere, nire ustez Toledoko Ituna da herrialde honetako herritar guztientzat pentsio duin bat bermatu behar duena.

Arkaitz San Jose Martinez: nik, besterik gabe, esan duzunez pentsio-sistema hobe bat zilegi den uste dugun ala ez aipatu duzunez, irmotasunez uste dugu baietz. Are gehiago, pentsatzen dugu jasangarria izango zela 1.080 euroko gutxieneko pentsioa duen pentsio-sistema bat, niri galdetzen badidazue 1.080 euroko oinarriko errenta unibertsala egon daitekeela ere uste dut, kontua da ezinezkoa dela, eta ezinezkoa da beste gauza batzuk ukitzen ez ditugun bitartean. Hau da, egungo sistemarekin ez. Baina, ekartzen badugu.... noski, Joseba, oso ongi esan duzu, oraingo erretiratuen pentsioak, edo oraingo pentsiodunena eta pentsiodunak orain lanean ari diren pertsonen ordaintzen dituzte. Batez besteko soldata 1.000 eurora ez iritea eragiten duen lan-erreforma batekin, kotizazio gutxi egin daitezke, eta gainera Toledoko Itun delakoa, arazo guztien konponbidea dela dirudien hori, pentsioak bermatzeko ideiarekin ahalbidetu zuena zera da, gizarte-segurantzak, bere funtsekin, ezin orekatzea pentsioen kaxa, hau da, blindatu egin zen onerako eta txarrerako, baita txarrerako ere. Antzina gizarte-segurantza espazio bat zen non dirua, funtsak, kapituluaren artean mugi zitezkeen eta horrela, diru-sarrera gutxiago bazegoen, pentsioak blindatzeko aukera zegoen. Orain itsulapiko bat egin zenez, gainera hustu egin dena bankua erreskatatzeko eta abar, orain kontua da ez zaigula iristen. Zilegi da, orain duguna baino askoz ere hobea, baita 1.080 eurokoa ere, azken batean pertsonen batez besteko soldataren % 60 dena, ez gutxiago eta ez gehiago.

Joseba Elejalde Ribacoba: besterik gabe aipatu une honetan badela gobernu-proiektu bat kontribuzioak ez diren nahiz alarguntsakoak diren gutxieneko pentsioen igoera bat barneratzen duena. Pentsio baxuenetarako % 1-3 bitarteko igoera aurreikusten da. Horrek suposatzen du 5,7 milioi pentsiodunen kasuan beren pentsioak igo egingo direla. Nik, Arkaitz, zorionez ala



zoritzarrez, ez dut honetarako irtenbidea, eta uste dut badiela teknikari eta pertsona garrantzitsu eta eraginekoak, eta horiek direla erabakiak hartu behar dituztenak. Zuk diozu gizarte-segurantza dena berritzea, agian litekeena da, baina horretarako azken batean uste dut Espainiako Kongresuan erabakiak hartzen dituztenen artean ipini behar direla ados. Ni ados nago pentsioak igotzearekin, nik tamalez ikusi dut 35 urte lanean eman dituen emakume batek ez zituela 650 euro ere jasotzen, eta horrekin bizi behar zuen. Eta hori bezala asko daude, 250 edo 300 eurotan geratzen diren alarguntsa-pentsioak zure senarra autonomoa bazen, goitik jota. Agian oso goitik ari naiz jotzen. Esan nahi dizudana da ulertzen dudala sistema hobetu egin behar dela, baina arazoa da sistema nola hobetu. Nola egin hemen eserita gaudenok biharko egunez gure pentsioak ziurtatuta izan ditzagun? Eta hemendik 30 urtera erretiratzeko direnek ere beren pentsioak ziurtatuta izan ditzaten. Hori da arazo nagusia, hori da mahaiaren gainean ipini behar den eztabaida handia, eta hori da egin behar duten erreforma handia. Nork? Egiaz ahal dutenek. Jakina, pertsonok, herritarrok eskatu egin behar dugu eta ongi iruditzen zait egin den mugimendua, eta beharrezkoa iruditzen zait, baina hortik aurrera, erabakiak hartu, arazoa nola konpondu ikusi eta gure pentsioak bermatu behar dituztenek, ez orain, izan ere, oso erraza da % 3, % 5 edo % 17 igotzea orain. Zertarako balio du hemendik 2 urtera izoztu beharrean bagaude ez zaigulako iristen? Pentsio-sistema bidezko, berdintasunezko eta diru-sarrerara eta gastuen artean orekatua lortu behar dugu. Eta hori lortzen ez dugun bitartean, Espainian 20 milioi herritar lanean egotea lortzen ez dugun bitartean, soldata baxuekin agian, baina lanean, eta gizarte-segurantzian kotizatzen, izan ere, berriro diot, nik 1.200 euro irabazten dituzten langileak ditut, mila eurokoak izango dira, baina nik gizarte-segurantzian 800 euro kotizatzen ditut daukadan langile bakoitzeko. Horrek ez du esanahi hori asko edo gutxi denik, baizik eta zenbat eta langile gehiago egon sistemaren barnean orduan eta kotizazio gehiago egongo dela. Eta horrek pentsio-sistema mantendu ahal izatea ahalbidetuko du. Ni ados nago igotzearekin, baina nik ezin dezaket esan jasagarria dela 3, 5 edo 7 igotzea. Nire aldetik, gutxieneko pentsioak, alarguntsakoak eta ez kontribuzioak, nik % 10 igoko nituzke. Baina sendagaien gaiarekin gertatzen denaren berdina da. Nik ezin dezaket ulertu alargun batek edo 500 eurora iristen ez den pentsiodun batek 10 euro ordaindu behar izatea. Eta, aitzitik, nire kasuan, soldata handiagoa dudalarik, hilero hartzen dudana sendagai batean % 60 edo % 80ko diru-laguntza ematen didate, sendagaiak bi euro balio dituenen. Bada, agian, hori ere berrikusi egin beharko da. Horregatik diotsut osorik hartuta, ideia, azken batean baliozko erabakiak hartu behar dituztenak, herritar guztiongan eragina duten erabakiak hartu behar dituztenak gure gainetik dauden pertsonak dira eta Madrilen erabakiak hartzen dituztenak dira.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, baina horretan gaude. Gure gaitasuna mozio bat onartzea da.

Alkatea: Joseba, uste dut argi azaldu duzula dagoeneko. Niri, egia esan, oso ongi iruditzen zaizkit pentsiodunen eskariak, oso bidezkoak iruditzen zaizkit eta espero dut erabat bidezkoak diren eskari horiek ez daitezela sektore batzuetatik aprobetxatu etekin politikoak ateratzeko eta serioitasunez jorra daitezela espero dut. Bozkatzeari ekingo diogu.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.



10.- Gure Esku Dago mozioa.

Alkatea: **“Gure Esku Dago** herritarren mugimendu bat da, Euskal Herrian erabakitze eskubidearen aldeko gizarte-giro bat sortzeko helburuarekin sortu zena, hori oinarritzko printzipioa izanik erabat demokratikoak diren gizarteetan. 2014az geroztik **GED** mugimenduak kontsultak bultzatu ditu ehunka herritan. Bertan eskubide horrekin lotutako galdera bat luzatzen da. Ildo horretatik, **Aiaraldea Bat**, elkarteak **Gure Esku Dago** mugimenduarekin lotuta dagoenak, Aiarako bost udalerrietako (LAudio, Amurrio, Artziniega, Okondo eta Aiara) herritarrak 2018ko maiatzaren 6an, igandez, egingo den kontsulta herrikoi batera deituko ditu. Bertan Aiaraldeako herritarrok gure borondatea adierazteko eskubidea izango dugu hurrengo galdera erantzunez: **Nahi al duzu erabili gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea Euskal Herriko herritarren borondate aske eta demokratikoki adierazia izanik muga bakarra?**

Aurrez adierazitakoaren jakitun izanik, Artziniegako zinegotziek adierazten dute ados daudela Euskal Herrian erabakitzeko eskubidearekin eta beren atxikipena adierazten dute Aiaraldean maiatzaren 6an egingo den herri kontsultaren alde.

Gainera, Artziniegako Udabatza osatzen dugunok herritarrak adoretzen ditugu kontsulta sustatzeko asmoz udalerrian garatzen diren jardueretan parte har dezaten, maiatzaren 6an bozkatzera joateko deialdi zehatza eginez.”

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

11.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 38 eta 67 bitarteko dekretuen berri eman du, eta batzuk falta dira. Hurrengo bilkuretan helaraziko ditugu.

Alkatea: Zerbait esan nahi baduzue.

Unai Gotxi Kastrexana: bai, baina bilatu beharrean naiz, izan ere, ez dakit zein den. Pilotalekuko kristaletarako egin zen kreditu-gaikuntza bat da. Kristalaren birjarpena esleitu ote den galdetzea zen.

Alkatea: bada, begira, bi aurrekontu genituen, bat azkarra izan zen, kristalak kendu eta egokitzekoa. Ondoren beste aurrekontu bat aurkeztu zuten, lan metalikoari zegokiona, metalgintzakoa. Hain zuzen, atzo, Rauli galdetu nion zertan zen, izan ere, loturarena, dagoeneko badugu aurrekontu-kreditua baina metalgintzako lan hori esleitura zegoen ala ez berrikusi behar genuen. Uste dut baietz. Baina ezin dizut esan dagoeneko bdagoen.

Unai Gotxi Kastrexana: baina kristalaren birjarpenarena esleitura dago, ezta?

Alkatea: bi aurrekontu ditugu. Alde batetik kristalaren egokitzapena dugu eta beste alde batetik metalgintzako lana, biak elkarren osagarri. Desmuntatzearekin batera doa muntaketa, gertatzen dena da muntaketa metalgintzako lan batzuekin osatu behar zela, eta horiek beranduago etorri ziren.



Unai Gotxi Kastrexana: Eta noizko aurreikusten da kokatzeko lanak hastea?

Alkatea: bada esaten dizut atzo galdetu niola Rauli eta ez zidan esan noizko egon daitekeen.

Unai Gotxi Kastrexana: bada, inauterietatik datorren kontua da, orduan kendu baitzuten, eta uste dut badela garaia, batez ere jendea kiroldegia eskatzen ari delako frontenisean jokatzeko, izan ere, egia esan hemen euria egiten duenean guztiz bustitzen da. Ez soilik frontenisean edo esku-pilotan jokatzeko saiatzen den jendearentzat, baizik eta baita haurrentzat eta euria denean bertan babesten diren gurasoentzat.

Alkatea: ez dakit.

Unai Gotxi Kastrexana: bada, horregatik.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

12.- Udal kudeaketaren kontrola.

- Iñigo Gómez Unzueta: ezer baino lehen, aurreko osoko bilkurari buruz zerbait esan nahi nuen. Esan nuen moduan, plazako iturria, zein egoeratan zegoen ikusi behar zela esan baitzen, bada jadanik abendutik konponketaren bat egitea zegoen aginduta eta iturria alda zedila, eta oraindik ez da ipini, egiteke dago.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta noiz aurreikusten da?

Alkatea: bada, aurrekontu bat daukagu, izan ere, aurrekontua onartu genuenean, enkargua dagoeneko eginda ez badago, ez baitut galdetu, galdetzea ahaztu zait, ekartzea izango da, eta ondoren brigadak iturria instalatuko du.

Unai Gotxi Kastrexana: eta orain aprobeztatzen dut, gero galdetzeko asmoa nuen eta. Erantzungo zaio abenduaren idatzia erregistratu zuen auzotarrari?

Alkatea: iturria aldatzea da egingo duguna. Uste dut hori dela garrantzitsua.

Unai Gotxi Kastrexana: beraz, ez.

Alkatea: hurrengoarekin jarraituko dut. Espaloiaren hondamenean inguruan, esan nuen moduan, txostena berrikusteko zain dago kontua eta batez ere brigadarekin obrak berezko bitartekoekin egin daitezkeen ala gauzatu ahal izateko kanpoko bitartekoak kontratatu behar ote diren begiratu behar da. SR-1 zonaldeko espaloiaren kontua atzo batzordean egingo diren obren berri eman zen, konponketa partzialaren berri, finean, espaloiaren konponketa dena eta, era berean, berdexka gehiago egon daitezkeen zonaldeak ur presioz garbitzeko aukera aipatu zen, dagoen berdexka hori kentzeko. Kaiolari dagokionez, osoko bilkuran esan nuen moduan, granjan dago. Litekeena da, halaxe da, usoak egoten jarraitzea, gutxi gorabehera, ez dakit, ez baitugu zenbat dauden kontrolatzen, pertzepzio kontua izan daiteke gehiago edo gutxiago egotearena, baina, jakina, usoek etortzen jarraituko dute, usoak zer jana dute herrian eta etortzen jarraituko dute. Orduan beno, bada sistema horrek funtzionatzen ez badu, agian besteren bat bilatu beharko da, ez dakit zein izango den balizko irtenbidea, baina ezingo dira triskatu. Eta ondoren era berean pinuetako arratoiei dagokionez, Ascen zuk aipatu zenuen eskatu zen Jose Marik aipatu zuela, aurrez Jesusekin eskatu zen jadanik, beraz aurten bi eskaera egin dira. Iraila da tratamendua egiteko unea, une honetan beldarrak pinuetako ernamuinak jaten aritu dira eta orain lurrera jaitsi eta lurperatu egiten dira, eta ondoren, udan, tximeleta ateratzen da, irailean eta urrian hasten da zuhaitzetan arrautzak ipintzen, eta hori da tratamendua egiteko garaia. Beraz, data horietan egin beharko du Aldundiak, guk Aldundiarekin ekinean jarraitu behar dugu, nahiz eta dagoeneko birritan egin dugun, pinu-beldarraren tratamendua. Eta hori da apur bat aurreko osoko bilkuratik dakardana, eta orain aipatu nahi duzuen.



• Unai Gotxi Kastrexana: nik, ondoren aurreko osoko bilkurari buruz aipatu duzunaren inguruan, espaloiarena, esan duzunez, obretako brigadarekin aztertuko da Udalak berak egin dezakeen ala kanpoko enpresaren bat kontratatu behar ote den. Noiz aztertuko da?

Alkatea: bada, begira, hori ere egiteke dugu aspaldidanik, esan dizut, aspaldidanik daukagu.

Unai Gotxi Kastrexana: 2015az geroztik.

Alkatea: bada, bai, 2015az geroztik, eta askotan helarazi da egiteko premia, baina nik egia esan udal langileek egiten duten lanarekin ere konfiantza daukat, eta uste dut horiek ere lan-karga handi samarra dutela, eta hori egiteke dago baina gauzatuko dute, eta pentsatzen dut oraindik burutu ezin izan badute beste lanketa batzuk egiten arituko zirelako dela, eta hori oraindik egiteke dagoela, baina egingo dutela.

Unai Gotxi Kastrexana: ez, nik hori ez dut zalantzan jartzen ordea. Nik zera esaten nuen, aztertu egingo dela esan duzu, orduan, noiz aztertuko da langileekin?

Alkatea: hain zuzen sarritan esan dugun zerbaite da, berezko bitartekoekin iristen ez bagara...

Unai Gotxi Kastrexana: ez, zera noiz, noiz. Ez egin beharra dagoela.

Alkatea: beti dataren bat eskatzen didazu, baina ezin dizut eman ordea, ez dakit.

Unai Gotxi Kastrexana: epe bat, hilabete, ez dakit, hurrengo osoko bilkuraren aurretik, lasai nadin esaten dizut eta hurrengo osoko bilkuran ez dizut hau galdetuko.

Alkatea: beno, bada, ez badaukagu, galde iezadazu.

Unai Gotxi Kastrexana: ados, bikain. Orduan, beharrezkotzat jotzen al da txostena eginda egotea espaloiak eraberritzeko?

Alkatea: ea, eskatu badugu, baietz esango nuke.

Unai Gotxi Kastrexana: nik aurreko osoko bilkuran esan nizun ez nuela beharrezkotzat ikusten, herriguneko espaloietan lauza batzuk aldatzeko, txosten bat egotea. Gaiari bizkortasun apur bat emateko da, besterik gabe. Izan ere, guk 2015ean idatzia aurkeztu bagenuen arazoa aurretik zegoelako da. Eta orain 2017aren amaiera aldera gogora ekarri badugu ere horregatik da. Orduan, ezin gara hemen egon hilero, urtero esan diezaguten, gauza bat egin beharrean gaudela.

Alkatea: esan dizut Udalak gauza asko dituela egiteke. Orduan, iristen doazen eran gauzatu doaz.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni bat nator Bildurekin, Iñigo askotan esan dizute, berezko bitartekoekin, Udalaren barnean dugun langileen brigadarekin, ezin badute egin premiazkoagoak diren beste lan batzuk dituztelako, atera lehiaketara. Duela bi hilabete hitz egin genuen txosten teknikoaren gaiari buruz. Nik uste dut bi hilabetetan, txosten bat egitea beharrezkoa bada, nire ustez, eta hala balioesten dut, ez dena beharrezkoa. Nik uste dut azken batean goiko kaletik igaro eta espaloien egoera ikustea baino ez dagoela, edo Agirre Lehendakariaren atzealdera joan eta espaloiak zein egoeratan dauden ikustea. Nik uste dut borondate politikoko kontua dela apur bat. Borondatea zuk daukazu Iñigo. Zuk edozein unetan atera dezakezu hori lehiaketara, eta duen zenbatekoa kontuan hartuta lehiaketa publikora ere ez, zuzenean udalerriko enpresa bati eman ahal zaio obra hori edo Udalarekin lan egiten duten enpresei. Uste dut hilero oposizioari esatea aztergai dagoela, berezko baliabideekin obra gauzatu ote daitekeen pentsatzen ari dela, bada apur bat etsigarria da. Nik zuzenean aurreko osoko bilkuran esan nizun, bestela duela bi osoko bilkuran, zuk duzula ahalmen hori, zuk duzu ahalmena Rauli esateko txosten bat egin dezala, txosten fimiñoa izango dela, beharrezkoa baldin bada eta ezinbestekoa txosten hori mahaiaren gainean egotea, eta enpresa batek konponketa horiek egin ditzala agintzea eta alde zaharrean bizi diren edo bertatik igarotzen diren pertsonak, azken batean, estropezuak, irristadak edo erorikoak izan ditzatela saihestea. Eta horregatik, nire ustez borondatea politikoa baino ez da, zuk erabakitzen duzu noiz eta nola egingo den.

Alkatea: hori da esan dudana ordea. Berezko baliabideekin egin behar dugula eta ez kanpora atera. Esaten ari zarete ez dela beharrezkoa txosten bat, baina lizitazio publikora atera behar badugu txosten bat behar da, ezin baititugu zenbatekoak hala eta horrela asmatu, uste dut



horretaz jabetzen zaretela. Beraz, beharrezkoa da. Eta jakina, berriro diot, badirudi udal langileak hemen daudela eta ez dutela ezer egiten, esaten ari zairenaren arabera.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dut hori esan. Nik nahiko argi azaldu dut, Iñigo, gauza garrantzitsuagoak izango dituztela egiteko, ez dut zalantzarik horretan. Esan nahi dizut duela bi urteko kontu bat dela, 2015eko kontu bat, nik uste dut nahikoa denbora izan dugula txostena egiteko, konponketa egiteko eta Bildu, hura baita bere garaian hona ekarri zuena, ez dadin egon hileru errepikatuz eta eskatuz mahai gainean udalerrin honetan duela bi urtetik gauzatzeke dauden gauzak daudela eta oso beharrezkoak direla Artziniegako herritarren egunerotasunean. Besterik gabe, xumean. Eta hori egiteko ahalmena zuk daukazula, ez Bilduk eta ez nik, ezingo diogu Rauli esan txosten tekniko egin dezala konponketa horien zenbatekoak gaintitzen duen ala ez jakiteko, lehiaketara atera behar ote den ala atera behar ez ote den jakiteko. Ahalmen hori Alkateak dauka, eta ahalmen hori gobernuko taldeak dauka. Eta oposiziotik osoko bilkura honetan behin eta berriz esaten ari garen bakararra da, behingoz egin dadila. Eta duela ez hainbeste gertatu zena errepikatuko dizut, espaloi batean beheramendua egitea ahaztu zitzaigun eta oso denbora gutxian konpondu zen. Txosten azkar bat egin zen, eta ez dut gogoan txostena beharrezkoa ote zen, izan ere, proiektuan jadanik barneratzen zen. Beraz, txostenik ere ez zen egingo, baina obra gauzatu zen zuzenean. Bada tira, hori egin zen bizkortasun berdinarekin, oposiziotik eskatzen zaizu, ongi irizita, egonari askorekin, egia esan Udal honetara egonari askorekin etorri behar da gai askotan, izan ere, oso lasai hartzen duzue guztia, zabuena gai bat da eta ispiuarena beste bat, eta horiek bezala ehunka daude. Besterik gabe diot...

Alkatea: baina berriro diot, oso lasai hartzen da, zeri buruz ari zara? Gobernuko taldeari buruz, udal langileei buruz, zeri buruz ari zara?

Joseba Elejalde Ribacoba: gobernuko taldeari buruz, patxada askorekin jokutzen baitu gauzak egiteko orduan. Hori da, besterik gabe, xumeki. 2015eko gauza bat da Iñigo. Nik ez dakit nola, zin egiten dizut, zu azken batean hona zatoz, klik bat izango duzu nonbait, nik ezin dut baina, hona etortzen zara hileko lehen egunetako lehen ostegunetan gauza berak nola esaten zaizkizun entzuteran, behin eta berriz, hainbat urtez. Zera esateko ahalmena duzunean "begira, eginda daukat, mutikoak, kito". Eta oso ongi geratzen zara, konpondu duzu, abian jarri duzu eta udalerrin guztiak pozik izango dira, eta ez diguzu hileru entzun beharko oposiziokooi ontzizainaren arauak errezitatuz. Ni ez natzaizu esaten ari langileek, berriro errepikatzen dizut, langileek beren lana egingo dute...

Alkatea: beste gauza bat egin beharko dugu, egunero egiten denaren berri eman beharko dugu zuek uler dezazuen beste gauza batzuk ere badaudela egiteko. Izan ere, badirudi ez dela deus egiten. Baina tira, kontuan izango dut.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez nauzu ulertzen.

Alkatea: bai, bai, bai, bikain ulertzen zaitut. Kontuan izango dut.

Unai Gotxi Kastrexana: nik, Josebak moztu baino lehen, esan behar nizun espero dudala hurrengo osoko bilkuran berriro ez galdetu behar izatea.

- Unai Gotxi Kastrexana: usoei dagokienez, zera esan genuen, ez uso gehiago zegoela, baizik eta herrigunearan zeuden kopuruak gora egin zuela, auzotarren kexak zeuden, eta batez ere baten bat hilik agertu zela eta ez naturalki hilda. Bat baino gehiago. Horrenbestez, ea herrigunearan bertan neurriren bat hartzea aztertzen ote zen.

Alkatea: ez dugu planteatu.

Unai Gotxi Kastrexana: begiratu hori pixka bat.

Alkatea: ez dakit gehiago edo gutxiago dauden. Orain ez dugu inolako erabakirik hartu, izan ere, uso kontuetan ere ez gara adituak eta ez dakigu...

Unai Gotxi Kastrexana: ez, ni ere ez.

- Unai Gotxi Kastrexana: eta ondotik, SR-1 zonaldeko auzotarrei dagokienez, atzo ahaztu



egin zitzaigun galdetzea bilkura noiz egitekoa den.

Alkatea: lehenbailehen egin behar dugu lizitaziora atera, plegua eratu eta obrak gauzatzeko.

Unai Gotxi Kastrexana: baina eperik gabe.

Alkatea: eperik gabe. Bai, lehenbailehen izan behar da. Niri gustatuko litzaidake plegua ekainerako eginda egotea, horrek esanahi du bilkura laster egin beharko dela. Izan ere, Raulen txostenaren arabera eratu behar ditugu pleguak, dauzkagun aukerekin. Pleguekin ematen dugun denbora, 160.000 eurora goaz, obra-kontratu ez dakit super sinplifikatu batera ez goazen, sinplifikatua, arrunta, ez dakit nola den.

Unai Gotxi Kastrexana: ulertzen dudanez apirilaren amaierarako edo maiatzerako bilkura bat dago SR-1 zonaldeko auzotarrekin.

Alkatea: bai, ez dakit zein egunetan.

Unai Gotxi Kastrexana: bikain.

- Alazne Lafragua Ureta: ezer ez, nik funtsean esan harritu egin nauela zein modutan moztu den aurrekontuen eztabaida. Lehor samar moztu dela iruditu zait. Ez dakit horrekin jarraitzeko gogorik ez zegoelako ote den edo zer baina iruditu zait "kito, pum" izan dela.

Alkatea: beno, agerraldia eta erantzun-txanda egon da...

Alazne Lafragua Ureta: bai, baina agian baziren esateko beste zenbait gauza eta ez da esateko betarik izan oso azkar moztu delako. Hori alde batetik, gero beste alde batetik, oraintxe espaloiei buruz hitz egin duzu. Orduan niri gustatuko litzaidake zehaztuko bazenu zein espaloi mota, izan ere, herri honetan konpondu beharreko espaloi askotxo etortzen zaizkit burura. Eta gero jadanik xendren kontua. Xendrak seinaleztatzeaz hitz egiten ari gara ez dakit zein urtetik, eta gero ni saiatzea, ni edo beste edozein pertsona, saiatzea osteratxo bat ematen herri honetako edozein xendratan barna eta ezin igarotzea erabat erabilgaitz daudelako, bada tira, horrek ere herren egiten du. Ez dakit hori konpontzeko asmorik badagoen, bai xendren kontuan, espaloi kontua uste dut guztiek aipatu dizutela...

Alkatea: ez dakit zein xendra ari zaren aipatzen, igaro nahi izan duzula eta ezin izan duzula.

Alazne Lafragua Ureta: bada bi adibide esan ahal dizkizut, bat Mendietatik Zaballara doana. Hori konpondu egin zen eta ziklogenesiarekin zuhaitz batzuk erori ziren eta sekula gehiago ez da ukitu. Tejatik Otsatira doan xendra, hori ere erabilgaitz dago, zuhaitz ugari dago lurrian, bertatik ere ezin da igaro, eta horrela badira zenbait. Ea konpontzeko asmorik ba ote dagoen, garbitzekoa, mendiei buruz asko hitz egiten dugu, eta gero egiaz ez dugu deus egiten, ez garitu ez ezer. Orduan, ondo legoke, turismoaz hitz egiten dugunez, xendrak markatzeaz hitz egiten dugunez, gauza asko aipatzen ditugunez, ondo legoke horiek konpondu eta garbitzea.

Alkatea: orain markatzeko dauden xendrak ez daude jarrita, izan ere, izaten ari garen neguarekin ezinezkoa izan da seinaleak ezartzea, baina seinaleak eginda daude.

Alazne Lafragua Ureta: iaztik neguan sartuta egongo gara nonbait. 2017ko urtarrilaz geroztik euria besterik ez du egin.

Alkatea: bada, ez dakit 2017ko neguaz geroztik izango den, baina denbora askotxo da euritan dela. Orduan beno, bide horiek aipatu dituzu. Egia da Zaballakoa Ganzorrotzek proposatzen zuenetako bat zela, eta esku-hartzeko hurrengoa izango litzateke. Hor daukagun esku-hartze nagusia pasabidearen instalazioa da. Errekaren gainean pasabide bat egin behar da. Mendi-martxan behintzat behin-behineko zerbait egiten zen igaro ahal izateko.

Alazne Lafragua Ureta: bai, palet bat. Baina kontua da iruditzen zaidala konpontzeko ados zaudela, baietz esaten ari zatzaizkidala, ados zaudela konpondu beharrearekin. Konpontzea gustatuko litzaidake, ez soilik ados egotea, izan ere, sarritan esaten duzu "izan ere, ados nago", baina azkenean gero ez da ezer konpontzen.

Alkatea: ados konpontzearekin eta ados osteratxoetarako ibilbideak egitearekin.

Alazne Lafragua Ureta: Eta egingo da?

Alkatea: bai, egingo da. Ados nago, bide asko ditugu. Ados nago guztietara ezin iritsi



gaitzkeela eta guztiak ezin ditugula mantendu esatean.

Alazne Lafragua Ureta: zentzurik ez duena zera da, ni oso ongi oroitzen naiz, izan ere, ziklogenesiaren aurretik bide guzti-guztiak garbitu ziren nahikoa sakon, eta urtebetera agian garbiketa hori berriro egitea komeni zen eta ordutik ez da egin. Oso ongi iruditzen zait zuek borondatea izatea, oso ongi iruditzen zait konpontzeko gogoa duzuelako, gauza horiek guztiak oso ongi iruditzen zaizkit, baina beti oso ongi iruditzen zait zuei ongi iruditzea konpondu beharra baina gero ez dut ikusten azkenik egiten denik, burutzen denik. Orduan egoera berbera da milioika gauzatan, eta behin eta berriz, eta behin eta berriz.

Alkatea: eta adibide bat ipiniko dizut, Dehesako bidearen mugaketa egin genuenean bazen bide-zati bat, beno zonalde hori berreskuratzekoa zela aipatzen genuena. Egia esatera bideak ikusten genituen, gaitutako bideak, eta ondoren gero bazen zuhaitzi bat, non haritz handiak dauden eta bazirudien lur-zatien arteko bereizketa zela. Esaten zuten ez, ez, ez, zuhaitz handien zonalde hori, hori bidea da, eta oraintxe bertan, esku hartu nahi denean, esaten digute “ez, izan ere, hor haritzak dituzue bidean, hori ezin duzue ukitu”.

Alazne Lafragua Ureta: edozein modutan Iñigo, nondik zatoz, mendira noa. Beti gauza berbera egiten didazu.

Alkatea: ez, ez, azaltzen dizut bideen gai hori, badirela ukitu ez diren bide zaharrak. Hori ari natzaizu esaten.

Alazne Lafragua Ureta: oso ongi iruditzen zait, baina zuk erantzun didazunak ez du inolako zerikusirik ni galdetzen ari natzaizunarekin.

Alkatea: adibide modura ari natzaizu ipintzen ikus dezazun pixka bat udalerrian zertan den bideen errealitatea.

Alazne Lafragua Ureta: Iñigo barkatuko didazu baina bideen errealitateari buruz badakit zerbait nik ere, izan ere, mendian osteratxoak egiten ditut, orduan, bide baten errealitateaz niri hitz egitea, kontua da gauza batekin ari natzaizula galdezka eta zuk erantzuten didazu zuhaitz batzuk zeudela ez dakit non. Ez da ni esaten ari naizena ordea. Ni esaten ari naiz bide horiek zikin daudela eta garbitu egin behar direla. Kito. Ez naiz beste ezer esaten ari. Hortik esatea zein politak diren zeuden bide zaharrak... bada bai, berreskuratu egin beharko liriteke. Ni esaten ari natzaizu zein bide dauden garbitzeko. Eta inoiz garbituko ote diren ari natzaizu galdetzen.

Alkatea: esaten dizut badirela ongi dauden bideak, badirela sasiak kendu beharreko bideak eta gero badirela haritzak dituzten bideak.

Alazne Lafragua Ureta: ados, hori badakit nik. Konponduko dira? Bideen deskribapen bat egiten ari zataizkit, eta ni joan naiteke eta ikusi. Galdetuko ote diren ari natzaizu galdetzen.

Alkatea: Alazne lehen erantzun dizut ordea.

Alazne Lafragua Ureta: bai, egunen batean, eta nik galdetu dizut, noiz? Noizbait? Unairena egingo dut.

Alkatea: esan dizut baietz, egiten joango den zerbait dela hori.

Alazne Lafragua Ureta: ez dit ezertarako ere balio, izan ere, ziur naiz hemendik hiru hilabetera galdera bera egingo dizudala eta zure erantzuna berbera izango da.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik, Dehesako bideari dagokionez, Iñigo, argi dago bide hori inbadituta zegoela, eta haritzak baino gehiago uste dut pinuak direla, eta kontua da alboko lur-zatiaren jabea den pertsonak bereizteko hesia ipini zuela eta Dehesako bidea inbaditu zuela. Horregatik ez du errepikatzen bide hori berreskura daitekeenik. Udalak borondatea badauka, basozainak eskatu egin beharko du eta hala jasotzen zuen kaltetuak bere garaian Udalarik konpontzeko eskatzen zionean, Dehesako bidea zabaldu egingo da, izan ere, arazoak zituen pinuak ateratzeko garaian, alboko beste batzuei baimenak eskatzen ibili behar zuen berak bertatik pinuak ateratzeko kamioi batekin, bestela bere bizitza arrisku bizian zegoelako, berak ezarri zuen, inolako trabarik gabe, pinu horiek edozein unetan moztu zitezkeela. Ez da egin arrazoi sinple batengatik, hots, denboran luzatzen diren gauza asko daudelako. Urarekin hitz egiten zen eta esan zen ezin genuela zubi bat ezarri bertan zegoen erreka txiki hartan, beraz bide



osoa berreskuratzea egiaz zaila da. Baina Urarekin borrokatu beharko da, administrazioaren batekin borrokatu beharko da noizean behin. Esan beharko zaie “honaino iritsi gara”, edo ea zein planteamendu edo irtenbide ematen didazun. Izan ere, bada errege bide bat, eta hori da egiazko errealitatea, eta errege bide bat sekula ez da galtzen. Nahitaez errege bidea mantendu egiten da eta araudiaren barnean dator, ezin da galdu. Beraz, azken batean zuk diozu: Zer da Udalean egin behar duguna? Bada, zera esateko erabakimena izan: Bidea konpondu nahi dugu? Egin dezagun. Bila ditzagun beharrezkoak diren inbertsioak eta egin dezagun. Ez egin oposizioko galdera bati gauza bat esan, edo egiaz gertatu zen planteamendu bat egin, egiaz gertatu baitzen, bidea berreskuratzea joan zenean pinuek janda zegoela..

Alkatea: pinuek eta haritzek.

Joseba Elejalde Ribacoba: baina pinu horiek landatu zituen pertsonak sekula ez zuen esan berak moztuko ez zituenik, are gehiago, baietz esan zuen, izan ere, une honetan dagoen pista bere lur-zatiaren erditik doa, eta hori da erabiltzen dena, eta hura da erregera doana, edo erregera txiki horretara. Eta hura da ondoren bestaldera igaro eta errege bidetik jarraitzea oztopatzen duena, izan ere, Urak ere planteatzen du hor ezin dela egurrezko zubi txiki bat egin. Nik ulertzen dut, nolabait eragozpenak gainditu beharko ditugula, erregera, iturburuak edo gainerakoak. Izan ere, badirudi Urak hemen ez duela ezertxo ere ukitzen uzten. Ura ez bada, mendiak. Bihar haritz bateko aldaxka bat mozteko asmoa duzu zure etxetik irten eta bizilaguna ukitzen duelako, eta mendietara eskatu behar duzu baimena, etorri egin behar dira, ikerketa bat egin moztu behar duzunaren inguruan, markatu egiten dizu, markatu gabe utzi, zera sinatu beharrean zaude, eta bat-batean guztiak hil honetan etortzen zaizkizu eta nahi izan dituzten zuhaitz guztiak moztu dizkizute, Artziniega Menako haranarekin eta Bizkaiarekin batzen duen errepide horretatik. Ez dute kanpoan zuhaitz bakarrik utzi, urte erdikoa, bi eguneko edo zazpi mendekoa. Izan ere, ustez, beraientzat, bide-segurtasuna, errespetu guztiarekin hori ere ulertzen baitut, zuhaitz hauen mantenuaren gaineratik dago. Bada, ikusi beharko da Artziniegako herritarren segurtasuna eta gozamina Uran teknikari batek eman dezakeen iritzia gaineratik daudela. Eta zera esan beharko zaio Urako teknikariari “aizu jauna, hau berreskuratzea egin nahi dugu”. Eta nola berreskuratzen da? Esadazu zuk irtenbidea, zer den hemen ipini behar dudana, zein zubi mota, zein pasabide mota, zein motako zer. Baina Udaletik oposizioak egindako galdera bati esaten badiogu “ez, inbadituta dago ordea”, eta hiru urtetan, lau urtetan, ez badugu beste ezer egin, Zenbat denbora darama Dehesako bide horren kontuak? Sei urte?

Alkatea: ez, barkatu, nik adibide modura ipini dut adierazteko bideak berreskuratzeko kontua ez dela makinak eraman eta sasiak kendu besterik ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, ez, jakina hori ez dela kontua, baina lehen esan dudana itzuliko naiz, borondate politikoko kontua da Iñigo. Esatekoa, bidea berreskuratzea nahi dut behingoz, hori egin nahi dut.

Alkatea: bai, bai, baina esaten dizut haritzak motel hazten direla eta hor dauden bidearen erdian. Besterik?

- Joseba Vivanco Retes: hilaren 23an erdi aroko azoka antolatzekeo interesa zuen jende ba ote zen ikusteko Udalak eman zuen epea amaitu zen. Erregistroan ikusi dugunez, hasiera batean, pertsona bakar batek ere ez du interesik azaldu, jakitea azkenean zertan geratzen den, Udalak antolatuko ote duen, edo nola geratzen den kontua.

Alkatea: bada izango dugun hurrengo batzordean jorra dezakegun gaia da hori.

Joseba Vivanco Retes: Oraindik ez al dago zehaztuta zer egingo den?

Alkatea: ez, oraindik ez.

Unai Gotxi Kastrexana: Baina, egingo da?

Alkatea: oraindik ez dago zehaztuta. Batzordean jorratuko dugula diot.

- Joseba Vivanco Retes: gauza bat bakarrik, ahaztu egin baitzait, zera, badakigu kartela



falta dela, panela ipintzea, autokarabanen aparkalekuen zonaldean. Pentsatzen dugu kartela euskaraz ere ipintzearen kontua barne dagoela hor... izan ere, gaztelaniaz dago, duela bizpahiru hilabete esan genuen gaztelania hutsean dagoela eta oraindik gaztelaniaz egoten jarraitzen du soilik, beraz pentsatzen dugu kartelak ipintzen direnean kartela euskaraz ere ipiniko dela.

Alkatea: agindutako kartelak gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez daude.

Joseba Vivanco Retes: hori bai, baina gero sarrerako panela gaztelania hutsean dago.

Alkatea: lehenengo hori aldatu egin beharrean gaude.

Joseba Vivanco Retes: izan ere duela hiru hilabete komentatu genuen jadanik, beno ipini zenean, edo duela lau, eta karabanetakoa gaztelania hutsean dago oraindik. Eta gero bai falta da, ez dakit hor erremateren bat geratzen den ala ez, baina egia da zonaldean zeuden paperontzi horietakoren bat ez dela berriro ipini. Esate baterako, bazen, gogoan dudanez, bat iturri bat ipini den lekuan.

Alkatea: bai, eta iturria konpontzera etor daitezen ere abisatuta daude.

- Joseba Elejalde Ribacoba: nik galdera bat. Ez dakit konturatu zareten Bentara doan errepidean, gutxi gorabehera Jose Mari bizi den etxearen parean, hortik ura jariatzen da etengabe. Eta egia da euri asko egiten ari dela, bana nik ez dut ikusi jariatzen egun bat bai eta hurrengoan ere bai, astebete euria egiteari uzten dio azken hiruzpalau hilabeteetan kontu zaila, hori ihesen bat da ala zorionez hor goran dugun iturbururen bat da? Izan ere, izugarria da egunero arekara doan litro kopurua. Nik hasiera batean euriaren kontua izan zitekeela pentsatzen nuen, baina egunez egun, ordutik ordura, halako zurrustada, arekara zuzenean doana. Ikuskizuna da ikustea eta, jakina, joan den hilean etorri ezin izan nuenean ezin izan nuen galdetu. Gustatuko litzaidake begiratzea ihesen bat ote den, ala iturbururen bat den, jakitearren.

Maria Lorente Burgos: Landan zehar da?

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, justu, azpialdean. Bai, gainera uste dut...

Maria Lorente Burgos: izan ere, atzealdean dagoen landan zehar, hortik errekasto bat jaisten da.

Alazne Lafragua Ureta: zu errepidearen eta bidearen artean doana esaten ari zara. Errepidea gurutzatzen duena.

Joseba Elejalde Ribacoba: hori da. Gainera, bitxia da, izan ere, auzotarraren arabera, agian ez da auzotarra baina tira, hemen ateratzen bada, badira zenbait auzotar lur mordo bat ipintzen dutenak, orduan ur hori guztiori bertan dagoen hiru etxebizitzetako autoen sarrera eta irteerako zonaldera doa. Orduan nor den auzotarra kontuan izanik, lurra hemen ipintzen du, orduan gertatzen dena da ur hori guztiori beherantz jariatzen dela, Artziniega aldera. Horrenbestez, estolderiak ezin du horrenbeste ur hartu, eta orduan errepidera joaten da. Baina egun batean joan, beste egun batean joan, beste batean joan eta ur kopuru bera ateratzen da, orduan dio...

Maria Lorente Burgos: nik uste dut goiko landakoa dela, gurutzatu egiten dela...

Joseba Elejalde Ribacoba: begiratu dadila, besterik gabe, ez dezagun hor ihes bat izan...

Alkatea: begiratuko dugu.

- Joseba Elejalde Ribacoba: ondoren bada beste bat apur bat aurrerago, Gordelizeko uraska zaharra, Gordelizera igotzen den bide zaharrean, zuhaitz bat dago bertan erorita, eta hartako adarretako bat errepidetik oso hurbil dago, arriskutsu samar dago, eta errepidetara deitu beharko litzateke...

Alkatea: hara, joan dira, guztia garbitu dute, eta hura utzi egin al dute?

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, bai. Zeharo erorita dagoen zuhaitz bat da. Gainera zeharka dago eta noski, gainera bihurgunean da, apur bat zabaldu behar bazara eta arekan sartzen bazara, eta hor autotxoak, zorionez edo zoritxarrez azkar doaz, bada, zuhaitzarekin aurki zaitzke parez pare.



- Joseba Elejalde Ribacoba: ondoren nik berriro diot, auzoetako areken egoera tamalgarria da, tamalgarria da. Zu SR-1 zonaldearen gaineko landetara joaten bazara, Baserrietara, eta hori lotsagarria da. Erretan ez dizut aipatu ere egin nahi ura nondik doan, errepidearen erditik. Badakit ez dela Udalaren eskumena, baina errepideen eskumena da, hemen izan dira hilabete eta erdi garbitzen, eta zer gutxiago hori kontuan izatea baino. Azken batean arekak garbitzea bederen gure bide edo errepideetako asfaltoak egoera onean mantentzeko, izan ere, azken batean lortzen duguna da lau urteren buruan berriro adabakiak ipintzea. Ez dakit askoz gastu handiagotan sartuko diren.

- Joseba Elejalde Ribacoba: Josebak aipatu duen autokarabanen gaiarekin, Facebook orrialdean egon da eztabaida bat, bertan kokatu edo aparkatzen ari ziren zenbait karabana eta ura doan zuten, eta eskatu Udalari hori lehenbailehen aktibatu dadila konponbidea jarri eta ikusteko nork.

Maria Lorente Burgos: ura doakoa da.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, ura, argia eta...Eztabaida zen ea dagoeneko ordaintzen zen, edo ez ote zen ordaintzen, nola ordaintzen zen edo zer.

Alkatea: ea, autokarabanen parkinga erabilgarri dago, eta sartu egin behar da...ura doakoa da, izan ere, Elkartearekin elkartu ginenean, Zorbeltzekin, esan zuen, beno, normalean ura...

Joseba Elejalde Ribacoba: ni saiatu naiz azaltzen eztabaida hori...ni saiatu naiz azaltzen. Besterik gabe herritarrei esatea jardunbidea zein den, horrela...

Joseba Vivanco Retes: panela falta da.

Joseba Elejalde Ribacoba: jendeak ikusten du bertan jendea dagoela aparkatuta eta pentsatzen dute...musu truk daudela, orduan udalerrian eztabaida dago

Maria Lorente Burgos: Facebook orrian mugitzen ari den esteka campercontact delakoa da, autokarabana zaleentzako aplikazio bat, eta bertan azaltzen da guztia, ura doakoa dela, argiak gehienezko bat duela...

Alkatea: era berean udalerriko komertzioetan fitxak ere banatu dira eta batzuek badute.

Joseba Elejalde Ribacoba: hori saiatu naiz ni azaltzen, nora joaten diren hartzera eta abar.

Alkateak: fitxak daude eskuragarri. Museoan daude, gasolindegian dituzte, Alfonek dauzka, igerilekuetan dauzkate, Herriak du eta ez dakit beste inork ere baduen.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamaiketan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.